

110. zk.
2002ko otsaila




Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

Franko itindua 48/27



- > Almudena Cid
- > Miss Araba
- > Kortada
- > Ortophonk



guri ulertzeko

2, 3 eta 5 orduko ikastaroak
Maila guztiak. EGA, Mintza eta Sakontze

euskara ikasi ▶▶

INFORMAZIOA

A. Campion 948 22 22 46

Lesaka 948 63 77 96

Errioxa 941 60 10 87

Gasteiz 945 15 43 41

Errege-erregina Katolikoak, 15 Adriano VI, 18 Badaia, 25
Tlf: 945 28 89 22 Tlf: 945 15 43 41 Tlf: 945 24 49 05

MATRIKULAZIO EPEA: Urtarrilaren 21etik Otsailaren 8ra
HABEren diru laguntzaz antolatua

elkar ulertzeko
para entendernos



toki eder ikastola

KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKALDUN ETA INTEGRALA

**“ZUEN SEME-ALABEK HEZKUNTZA ELEBIDUNA ETA INTEGRALA
IZAN DEZATEN, IKASLEEN ARLO GUZTIEN GARAPENA
(NORTASUNA, GORPUTZA, ADIMENA, EMOZIOA ETA GIZA
HARREMANAK) EUSKARAZ ESKAINTZEN DIZUEGU”**

**ZERBITZUAK: JANTOKIA, AUTOBUSAK, EKINTZA OSAGARRIAK,
INFORMATIKA GELA, INGELESA 4 URTETIK AURRERA,
SIKOMOTRIZITATEA**

**2002-2003 IKASTURTERAKO
IZEN-EMATEA
OTSAILAREN 5ETIK 16RA**

**Wellingtongo Dukearen kalea, 6
01010 Lakua. Gasteiz
e-posta: tokieder@euskalnet.net
Tfnoa. 945 17 12 10**

110. zk. 2002ko otsaila

4-6. ORR.:
ZIZKA-MIZKAK. HILEKO GAIA: GAZTETXEA

7. ORR.:
GEUgune

9. ORR.:
EUSKARAREN TELEFONOA

10-11. ORR.:
ELKARLANEAN LEHIAKETA
THE BALDE ALDIZKARI BERRIA

13-15. ORR.:
ALMUDENA CID BARTZELONATIK

17. ORR.:
III. JON AIZPURU SARIA (JESUS OBRERO
IKASTETXEA)

18-19. ORR.:
GEURO

21-23. ORR.:
KORTADA, FILM LABURREN GUNEA

24. ORR.:
OIHANE IBARROLA, MISS ARABA-02

25-27. ORR.:
ORTOPHONK gasteiztarak LEHEN DISKORANTZ,
ARRAKASTAREN UZTA

29-31. ORR.:
BAGAREKO IPUIN TXAPELKETA: 2002ko DEIALDIA
eta 2001eko IRABAZLEEN IPUINAK

32. ORR.:
ARABA EUSKARAZ-02. KULTUR ERROTA

33. ORR.:
Zeuk aukeratu!

34. ORR.:
Iñigo Sarasolaren komikia




GEU Elkartearen ekimenez egina
Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfnoa. eta Faxa: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate. Aldizkariko batzordea: Josune Velez de Mendizabal, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez. Kazetariak: Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron. Argazkiak: Edorta Sanz. Bestelako irudiak-bilaketa: E.B. Testuen orrazketa-zuzenketak: E.B. Maketa: Dalvez. Marrazkiak eta logoa: Iñigo Sarasola. Araba Bixotzian: Ernesto Murillo 'Simonides'. Kolaboratzaileak: Iñaki Zorakin, Publizitatea eta Banaketa: Edurne Begiristain. Sustapen-harpidetza saila: E.B.Z., Edurne Begiristain.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) • Ale Kopurua: 2.500
LG: VI-582/92 -ISSN: 1133-0988 •

Frankeo Inundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu (Gasteiz) hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitako enantzikizunik.



ya sabe castellano

si MATRICULAS
a tu hijo-a en EUSKERA
será BILINGÜE y
VITORIA-GASTEIZ también



GASTEIZEN EUSKARAZ
nahi dugu hitz eta jolas,
lan eta bizi
eta HORTARA GOAZ

"EL EUSKARA, UN DERECHO Y UNA
VENTAJA
ETORKIZUNA EUSKARAZ DATOR
MATRICULA A TU HIJO/A
EN EL MODELO D"
(EUSKALTZALEON
ELKARGUNEA-2001)

"YA SABE CASTELLANO
SI MATRICULAS A TU HIJO-A EN
EUSKERA
SERÁ BILINGÜE Y
VITORIA-GASTEIZ TAMBIÉN
GASTEIZEN EUSKARAZ
NAHI DUGU HITZ ETA JOLAS,
LAN ETA BIZI
ETA HORTARA GOAZ"
(GEU)



4. ORR.



13-15. ORR.



25-27. ORR.

*URTARRILEKO ALEKO LOUAREN INGURUKO
ERREPORTAJEAN (20-21. orr.) SARRERATXO HAU FALTA
ZEN:

Denok jakinaren gainean gaude: Hezkuntza eta Kultura Ministerioak unibertsitate lege berri bat aurkeztu du, eta honen aurkako ahotsak, dagoeneko, altxatu egin dira. Hala ere, Pilar del Castillo ministroak oraindik ez die salaketa hauei kasurik egin eta L.O.U.a aurrera doa.

*ENEKO ETXEBARRIETAK TXILEN DAGOELA ESANEZ
IDATZI DIGU. ANIMO ENEKO!

GASTEIKZO GAZTETXEAREN AZKENAK PUNTUZ PUNTU



Gaztetxeko liburutegia

• GERO ETA ATXIKIMENDU GEHIAGO:

Gero eta gehiago dira Gaztetxearen alde agertzen ari diren elkarte eta taldeak (alderdi politikoak, sindikatuak...) zein banakoak (komunikabide desberdinetako kideak).

• KOMUNIKABIDEETAN ERE GAZTETXEAREKIN BAT EGINEZ

Urtarrilaren 19an Gasteizko zenbait komunikabidetako hainbat lankideren sinadurak bildu zituzten Gaztetxeko kideek, Gaztetxearen aldeko gasteiztarren multzoa areagotuz. Hona hemen Gaztetxearen izaera eta ezaugarriak dakartzan sinadura bilketaren testua:

“NI ERE GAZTETXEAREKIN BAT”

“Gasteizko Gaztetxea bere erabaki eta ekintzak aurrera eramaten dituen gizarte eta kultura gunee autogestionatua dela eta hamahiru urte igarota jarduera iraunkorra eta etengabea duela pentsatzen dut. Gainera jarduera hori herritar gehienek eta iritzi askotakoek ontzat jotzen dutela iruditzen zait; ni neu ere iritzi berekoa naiz. Egiten duen gizarte eta kultura lanak ez du lekurik, ezta aukerarik ere, esparru ofizialetan eta gure hiriko gizarte eta kultura aukerei aberastasuna eskaintzen diola irizten diot. Horrela erabili nahi duten pertsona eta taldeentzat baliabide preziatua da.

Nire ustez, Gaztetxea musikarako, antzerkirako eta jai herritarretarako gunea izan da eta bada. Gero eta aruntagoa den diruaren eta burokraziaren menpe dagoen aisialdiari aurre egiteko gunee alternatiboa. Jendearen ikasteko eta bizitzeko gogoia asetzeko gunea, batez ere gazteentzat. Labur esanda, gunee irekia eta jendea baztertzeko ez duena, diruaren eta burokraziaren menpe dauden lekuetan aukerarik ez duten jarduerak aurrera egin dezaten.

Hori guztia aintzat hartuta, udal gobernuak erabaki duen kanporatzeko eta eraikuntza botatzeko egitasmoaren aurrean, Gaztetxeak aurrera egin behar duela aldarrikatzen dut. Bide batez, arduradun politikoen gustu eta gogoia alde batera utzita, udal politikak herritarren nahiarekin bat etorri behar duela eskatzen dutenekin ados nagoela adierazten dut. Horrek, une eta egoera honetan, Gaztetxearen iraupena eta bermatzea eskatzen du”.

• **GAZTETXEAREN ALDEKO "9 ASTE ETA ERDI" EKIMENA ARRAKASTA HANDIZ BUKAERARANTZ**

Aste internazionalista, langileak, feministak, aste ekologista, euskaltzaleak, sexu askapenerako astea..., gizarte gasteiztarraren arlo desberdinak eta askotarikoen isla, egitarau kultural osotu eta aberasgarri bati ekinez, gaztetxea *guztion etxea* delako.

• **UDALARI AURREA HARTU NAHIAN, "AUZIA KONPONTZEKO ALDIA" OINARRIA DUEN KANPAINA BERRI BAT MARTXAN JARRI DUTE, "ANIZTASUNAREN ALDEKO ESKUBIDEAREN IZENEAN"**

• **MARTXOAREN 23a: MANIFESTAZIORAKO DEIALDIA, KANPAINARI AMAIERA EMATEKO**



• **SORGINDUZ, GASTEIZKO GAZTETXEKO BOLETINA KALEAN:**

"Gasteiztar orori Gaztetxea zer den, bere jarduera zertan datzan ezagutzeko aukera emango dion" argitalpen honetan honako iritziak irakur daitezke:

"Pretende ser una alternativa a la cultura "oficial" y, en todo caso, es una opción interesante y digna de respeto... lo importante creo que es que se promueva la autonomía y la responsabilidad de esos jóvenes" (Jose Angel Cuerva, "¿Qué opina del modelo de autogestión o asambleario del Gaztetxe? galderari erantzunez).



araba bixotzian

gastelZkinak



BADIRUDI URTE AMAIERAKO IZOZTE GOGOR HORIEK ATZEAN GERATU DIRELA...

naturaren isladak



ARABAKO
NATUR
INSTITUTUA

Iñaki Zorrakin



Amiamoko edo zikoina zuria (*Ciconia ciconia*). Gasteiz, 2002/1

San Blaserako?
Ez, askoz lehenago. Batzuek ez digute uzten.
Klima aldaketaren beste lekuko bat.

Hemendik aurrera atal hau finkoa izango da gure orrietan: zerbait saldu, erosi, alokairuan jarri edota alokatu nahi duzula...? Eskola partikularren berri eman nahi duzula?

Umeak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko lagun baten bila zabiltzala...?

HEMEN DUZUE EUSKARAZ EGITEKO AUKERA!!!

(Telefonoz edo posta elektronikoaren bidez)

GEU AZOKA

• SALMENTAK-ALOKAIRUAK

Etxe bat salgai. 3 logela, 2 egongela (behekosu bana), sukaldea, komuna. Garaje-tailerra. 2800 metro karratuko lur-saila. Telefona. Lorategia. Oleta (Araba), Gasteiztik 27 km; Otxandiotik 3 km. Leku zoragarria, Urkiolako Parke Naturaletik oso gertu. Anboto eta Orisolpean. 27 milioi pta. Dei **945 263 119** edo igorri mezua daviesti@inicia.es posta elektroniko helbidera.

IMAR gurdi-denda salgai: Haurrak gazte bihurtu eta besterik ez ekartzea erabaki dugunez, **oso egoera onean** dagoen eta bospasei aldiz soilik erabilia izan den gurdi-denda bat saldu nahi dugu. Hauxek dira bere **ezaugarriak:** bi personentzako (haurrak izanez gero gehiago) bi gela ditu, atari handi bat, eta ondoan beste bat (aurrekoa bezain handia) gehi daiteke era errazean. Gurdiarekin batera **kutxatzar** handi eta berri bat doa. Guzti honengatik **1.200 euro** eskatzen ditugu. Informazio gehiago nahi baduzu dei ezazu tfno. honetara **945-26 41 21**

• UMEAK-ETXEKO LANAK-ESKOLA PARTIKULARRAK-LANAK...:

*22 urteko gazte batek **lan egingo luke** asteburuetan. 945 25 13 39 (Josu).

KANGEUROAK

Umeak zaintzeko prest zaudela? KanGeuroen zerrendan agertu nahi duzula? Deitu 945 22 21 53 telefono zenbakira -edo e-mailez- eta eman zure izena, telefona eta zehaztu zure ordutegia (egun osoz, goizez, arratsaldez, gauetz, asteburuak...). Norbaitek KanGeuro baten beharra balu... hemen leukake aukera zurekin zuzenean kontaktuan jartzeko!!

**EGUN OSOZ • GOIZEZ • ARRATSALDEZ
GAUEZ • ASTEBURUAK**

GEU elkartearen posta elektronikoa:
geuelkarte@grn.es
Gogoratu aldizkariarena:
geugaste@grn.es

GEUREKIN MENDIRA

OTSAILEKO IRTEERA

OTZAMENDI (ARNABA)

OTSAILAREN 17an

IRTEERA: goizeko 9.00etan, Txapela tabernaren aurretik (Prado kalean)
ITZULERA: arratsaldeko 5.00ak aldera

Informazio gehiago:
Maite, 945282316

**GEU-AGENDAK-02
SALGAI!!! 12, 02 EURO
DEITU LEHENBAILEHEN:
945 22 21 53**



KULTUR ERROTA-02 (GEU elkartearen eskutik)

OTSAILAREN 26an, asteartea, 20.30etan

PARRALEN

"BITARTEAN HELDU ESKUTIK"

POESIA ERREZITALDIA

(POESIA, MUSIKA, MARGO-LANA)

• **KIRMEN URIBE • TXOMIN URIBE • JOSU ARANBARRI**



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ

EUSKAL LABELA LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

**Gasteizko
haragitegirik zaharrena**

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Udaberria

euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

"Herri kirolak eta herri
jolasak kultura dira"

KULKI

www.kulki.org



GORETTI ILEAPAINDEGIA


Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ



BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73

MARRAZKIAK - KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK



Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

IZOZKI TABERNA

Eguerditan, astalabeneretik ostiralera

JANTOKI BEGETARIANO

SAN FRANTZESKO XABIERKOAKEN KANTOIA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL. - 945 27 68 33



Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

Dazkarprint
Imprenta / Inprimategia

Helbide berria...

Landazuri, 7

♦ INPRIMATEGIA ♦ Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ

ARANBIZKARRA

ZURE AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16 Tfnoa.:
945 28 28 39
01002 Gasteiz

Zure begiak, gure kontu



PROFESIONALITASUNA ETA ZERBITZUA

Aditurik onenek eta azken-azkenengo
teknologiak bakarrik berma dezakete
ongi egindako lana. Zerbitzu osoa,
norberaren neurrira, hurbila eta saiaturia.

Horixe duzu gure
konpromisoa.

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA

DESDE 1856 AZ GERO

MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

EUSKARAREN TELEFONOA, EUSKALDUNON ZERBITZURA



902 194 332

Edurne Begiristain

- ZER DA: Euskararen Telefonoa Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren doaneko zerbitzua da. Behatokiak euskal herritar guztien eskura jarri nahi duen tresna da hau, zeinaren bitartez herritarrek euskararen inguruko kontsultak, kexak eta txaloketak adieraz ditzaketen.

- NOIZ SORTU: Iazko abenduaren 20an aurkeztu zuten Gasteizen, baina aurretik hainbat proba eginak zituzten, proba epe horretan 60 kexa inguru jaso zituztelarik, gizarteak horrelako zerbitzu baten premia zueneko isla.

- ZERGATIK: Kontseiluaren ekimena izan zen zerbitzu hau sortzea, ikusi baitzen hutsune bat zegoela hizkuntz eskubideen kexak, kontsultak edota txaloketak erakundeen aurrean, eta hauetako zeinetan, aurkezteko orduan.

- HELBURUA: Euskararen telefonoa tresna zuzena eta eraginkorra da herritarrek erakundeen hizkuntz eskubideen urraketak salatu ditzaten eta modu horretan, Behatokiak kexa horiek erakunde publikoen aurrean aurkez ditzan, betiere euskararen egoera hobetzeko asmoz. Horretaz gainera, Behatokia datu horietaz baliatuko da hizkuntz eskubideen diagnostikoa egiteko eta urraketak horiek konpontzeko.

- PROZESUA: Herritar batek Euskararen Telefonora deitzen duenean kexa bat egiteko bere salaketak prozesu bat jarraituko du. Lehenik eta behin, telefonoaren bestaldean dagoen langileak hainbat galdera egingo dizkio deitzaileari: kexa bat egin nahi duen, edo argibideak nahi dituen

edota txalotzeko deia den galdetuko dio. Ostean, bere datu pertsonalak eskatuko dizkio, salaketa dagokion erakundearen aurrean aurkezterakoan berau ongi dokumentatua egon dadin. Argi gera dadila, hala ere, datuok Behatokiak bapestekotasun osoz babestuko dituela, eta soilik urteko txostenean balio estatistiko gisa baino ez direla agertuko.

Behin salaketa egin denean, 30 egunen buruan herritarrek Behatokiaren gutuna jasoko du, non bere kexari emandako bideraketaren berri emango zaion.

- SALAKETA MOTAK: Telefonoa martxan jarri zenez geroztik, gehienbat erakunde publikoen inguruko kexak izan dira nagusi, nahiz eta eremu pribatukoak ere jaso dituzten. Erakunde publikoei dagokienez, Osasun arloari, Estatuko Administrazioari, Udalei, Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari egin zaizkie salaketa gehienak.

- LAN EREMUA: Momentuz Hego Euskal Herrian baino ez du funtzionatzen Euskararen Telefonoak, baina aurtengo udaberrirako Iparraldean ere abian jarriko dute. Horren arrazoia da telefonoak 902 aurrezkia duela Hego Euskal Herriko edozein tokitatik deitzailearen prezioa berbera izan dadin. Aurrezkiak ez du, ordea, Iparralderako balio, hortaz udaberrirako zenbaki berria jarriko dute Iparraldeko lagunek hegoaldekoek bezala ordain dezaten.

- ORDUTEGIA:

*Goizez: 9etatik 14.00etara

*Arratsaldez: 16.00etatik 19:00etara



LANDAZURI IKASTOLA

Adi 2002-2003 ikasturterako
aurrematrikulazioari!

OTSAILEAN

'D' Erdiguneko
eredua ikastola
bakarra

Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 5 • 01009 GASTEIZ - Tfnoa: 945 14 00 66

ELKARLANEAN ARGITALETXEAREN
ESKUTIK...

GALTZERDI SUIZIDA

Izenburua: GALTZERDI SUIZIDA

Egilea: Mariasun Landa

Marrazkiak eta diseinua: Antton Olariaga

Orriak: 96

Salneurria: 1.990 pta. (11, 96 euro)

Data: 2001eko abendua

“Orain dela aste batzuk gertatu zen: laugarren solairutik bota nuen neure burua. Eta harrezkero gertatu zaizkidanak kontatu nahi nituzke hemen, niri, bederen, sinestezinak eta harrigariak iruditzen baitzaizkit!”

Honelaxe hasten da Mariasun Landaren nobela berria. Antton Olariagaren koloreta-ko marrazkiek are ederrago bihurtzen duten obra biribil hau.

Galtzerdi bat delako protagonista nagusia darama liburuak hain izenburu bitxia, edonori jakinmina pizten diona. Izan ere, galtzerdi baten ahotan jarri ditu egileak edonork izan ditzakegun zalantzak eta burutazioak, senti dezakegun bakardadea edo maitasuna, etsipena edo bizi-poza... Fikziozko kontakizuna izan arren, gizakion eguneroko errealitatea islatzen du obra honek. Galtzerdi ausart batek lehenengo pertsonan kontatuko digu bere burua laugarren solairutik bota zuenetik maitasunaren kilimak sentitu zituen unerainoko gorabehera guztiak. Abentura eta erreflexioz betetako liburuak delako da egokia nahiz gazte nahiz helduentzat.

Eta ezin da aipatu gabe utzi Antton Olariagak liburu honetan egindako lana. Mariasunen testuari etxe eder bat egin dio arkitekto handi honek.




ELKARLANEAN

Egileekin hitz egin nahi izanez gero, hemen telefonoak:

-Mariasun Landa: 943 461 205 / 943 017 013

-Antton Olariaga: 943 557 526



OTSAILEKO ELKARLANEAN LEHIAKETA

“HAIZEA NORA, ZAPIAK
HARA”
ESAERA ZAHARRAK ZER
ESAN NAHI DU?

BIDALI ERANTZUNA
POSTAZ
EDO E-POSTAZ, eta
ZORTE ON!

• URTARRILEKO LEHIAKETA

- GALDERA:

IBAN ZALDUA eta GERARDO MARKULETA bertako idazleek ipuin liburu bat argitaratu zuten batera 1999an. ZEIN LIBURU DA?

- ERANTZUNA :

“IPUIN EUSKALDUNAK”

- HARPIDEDUN IRABAZLEA:

IÑAKI NUÑEZ ESTEBAN

ZURETZAT JON ARRETXEREN

“LARUNBATAK”

*ABENDUKO LEHIAKETAKO

IRABAZLEA AZKENEAN

EZAGUTU GENUEN:

MIRIAM GAZTELUMENDI

BERARENTZAT

SARRIONAINDIAREN

“LAGUN IZOZTUA”

ZORIONAK!

IRUSTA

poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19

Tfnoa: 945 23 19 33

GASTEIZ

**XIXILU
JATETXEA**

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

**EL
BAR
Kutxi**

eguneko

**LA RIOJANA
jatetxea**

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39

bar • restaurante
• albéniz

Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

ALDIZKARI BERRIA ETA BERRITZAILEA

Edurne Begiristain

• **ZER DA:** The Balde euskaraz eta ingelesez argitaratzen den aldizkari berria da. Euskal Herri osoan banatzen den bihilabatekaria da eta Cesar Ekisoain koordinatzaileetako batek definitzen duen bezala, "azken joerak aztertzen dituen aldizkaria da". Haren hitzetan, argitalpen "oso irekia" da, izan ere, ale batean dagoen egiturak ez dauka zerikusirik beste ale batean ateratzen denarekin. Diseinua alez ale erabat aldatzen da, kolaboratzaileek proposatzen dituzten gai eta ideien arabera.

• **SORTZE DATA:** 0 alea iraila-urrian atera zuten (bihilabeterakaria baita), eta lehenengo zenbakia, berriz, abendua-urtarrilean. Orain otsaila-martxoko alea prestatzen ari dira eta bigarren zenbaki hau gutxi barru kalean izango da.

• **ZERGATIK SORTU:** esarrek azaltzen digunez, ez dago inolako arrazoi konkreturik gisa honetako aldizkari bat kaleratzeko. Bere hitzetan, "guri irakurtzea gustatuko litzaigukeen aldizkaria baino ez dugu egin, Euskal Herrian horrelakorik ez baitzegoen, eta horregatik animatu ginen". Bere irudiko, Euskal Herrian ez zegoen formari garrantzia ematen zion aldizkaririk, eta beraiek irudiari, alegia, diseinuari, eta era berean edukiari garrantzia eman nahi zioten. Horregatik sortu dute The Balde.

• **HIZKUNTZAK:** Euskaraz eta ingelesez argitaratzea zerbait berritzailea dela dudarik ez dago. Baina bi hizkuntza horiekin lan egiteak badu bere arrazoiak: "bagenekien euskaraz ateratzearekin Euskal Herrira mugatu egiten ginela. Baina ez genuen gazteleraz atera nahi, horrek euskara jango bailuke. Hortaz, aldizkaria gure mugetatik at irekitzeko asmotan, ingelesez ere idaztea otu zitzai-gun", adierazi digu Ekisoainek. Hala ere, jakin badakite merkatua ez dela batere samurra izango, nahiz eta halako hizkuntza nahaske-ta egiteak bide berriak irekiko dizkien.

• **IZENA:** The Balde izenak euskara eta ingelesarekin jolasten du. Baina ez hori bakarrik, beste esanahi bat ere badu aldizkariaren izenburuak. Alegia, bi hizkuntzetan dela adierazteaz gain, dohainik (debalde) dela azaltzen du.



• **BANAKETA:** Esan bezala, dohainik banatzen den aldizkaria da, eta Gasteiz, Donostia, Iruñea, Baiona eta Bilboko denda, ilea-paindegi, liburutenda eta bestelako lekuetan aurki daiteke. Gainera, laster Euskal Herrikan kanpo ere banatzeari ekingo diote, Landetan hain zuzen ere. Uneotan 15.000 ale banatzen dituzte. Harpidetzari dagokionez, esan behar da komertzioetako jabeek ordaindu behar duten arren, bezeroek debalde har dezaketela eta lasai asko irakurri. Dena dela, harpidedun berriak egiteko kanpaina abian jarri dute eta gure orriak aprobetxatu dituzte zuei proposamena helarazteko. Harpidedun egin nahi duenak euren web orriaren agertzen den formularioa betetzea baino ez du egin behar (hauxe duzue helbidea: www.thebalde.net), harpidetza kuota honakoa delarik: 9 euro urtean. Horren truke urtean sei zenbaki jasoko dituzue etxean.

• **LAN TALDEA:** Kolaboratzaileekin funtzionatzen duen aldizkaria da, Euskal Herri osoan kolaboratzaile sarea baitute, eta bakoitzak bere arloa jorratzen du. Hala, literatura Kirmen Uribek egiten du, zinea Koldo Almandozek eta artea Artiko izeneko aldizkariak, adibide batzuk jartzearen.

• **AURRIKUSPENAK:** Ez dakite nola joango zaien, baina Durangon izandako harrera ikusita, uste dute jendeak ongi hartu duela eta diseinu aldetik gauza berriak eta txukunak egitea eskertzen duela..



**EUROPATIK
EUROPARAKO
ZEREGINETAN ERE
NAHI DUGU
EUSKADI!**

NONBAIT

ZURE EUSKAL DENDAK

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7

Tel./faxa: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ

BUZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

JANTZI
ETA
OPARIAK

Aiztogile kalea (Kutxi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ

Garagardotegia
 Ostiraletik
 Igandera
IREKITA
 (astelohenetik
 ostegunera
 itxita)

La Blanca
 * Oilasko
 erreak
 * Kazolatxoak
Tfnoa. 945 27 90 46
Herrandarren kalea, 82
Gasteiz


OKOA!
 arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!
Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38


Hegoamerikako
jantzirik ederrenak
Pintore kalea. (S. Frantzisko kantaiko ortzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

Confeciones
Pinedo
JANTZIAK
San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

Argazki - Estudioa
Erramun
Heradio Fournier, 23 **Askatasun kalea, 5**
Tfnoa: 13 71 02 **Tfnoa: 26 19 91**
01006 **01004**

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!
Jatetxea - Taberna

"EL CLARETÉ"
Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefonia: 945 26 38 74

HEGOALDE
Euskaltegia

Matrikula zaitetz !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

RAFA TEJA ATELIER

"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuz margotuenak"
- ZAPIAK -
Arantza Arregui
Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa.: 945 13 33 59

Arg. K.F.B.



Gasteiz 14 urterekin utzi zuenean, norbaitek bi Joko Olinpikotan izango zela esan balio Almudenak ez zukeen sinetsiko. Zortzi urte beranduago, eta gimnasia erritmikorako gehiegizkoa ematen duen 22 urteko adinarekin, San Cugat del Vallés-eko Errendimendu Handiko Egoitzan bizi da bere hirugarren olinpiadak izan daitezkeenetara iristeko egunero-egunero borrokatzen. Dotoretasuna eta perfektioaren islada, gasteiztar honek munduko 10 gimnasta onenen artean egoitea lortu du. Gorputz luzeska eta malgua, 48 kilo eta bizimodu gogorra. Baina Almudena Cid zoriontsua da egiten duenarekin.

Almudena Cid “Betiko euskal kirolaria naiz”



Ainhoa Ferron

- ZERTARAKO PRESTATZEN ARI ZARA ORAIN?

- Epe motzera daukadan konpetiziorik garrantzitsua Europako Txapelketa da, printzipioz Gasteizen egingo dena. Une hauetan epe motzera ditudan datetan kontzentratzen ari naiz. Datorren urteari begira Munduko Txapelketa dago, eta gero... Atenas 2004; hori da nire ametsa, behintzat, eta horretarako lan egiten ari naiz.

- 22 URTEREkin, ZER EMAN DEZAKEZU ORAINDIK GIMNASTA BEZALA?

- Asko egin dezakedala uste dut. Oraintsu izan den kodigo aldaketak, fisikoki oso ondo egoteaz gain, maisutasuna eta esperientzia ere eskatzen ditu, eta hori adinarekin besterik ez lortzen den gauza da.

“Atenasera iristen banaiz hiru joko olinpikotan egon den lehenengo gimnasta izango naiz”

Azken hau nire alde daukadala uste dut, baina ongi konpetitzeko beharra ere hor dago, noski. Atenasera iristen banaiz hiru joko olinpikotan egon den lehenengo gimnasta izango naiz, eta pentsamendu polita iruditzen zait.

- ORAIN ARTE BI OLINPIADATAN ESKU HARTU DUZU, NOLA BIZI IZAN DITUZU?

- Guztiz desberdinak izan dira biak. Lehenak, Atlanta 1996, 16 urte nituela egin nituen eta besteak, Sidney-koak, 20 urterekin. Atlantan hain nintzen gaztea, etxera itzuli arte ez nintzela non nengoen konaturatu ere egin. Orduan ulertu nuen olinpiada batzuk kirolari batek izan dezakeen xederik handiena direla. Gero, Sidney-ko Joko Olinpikoetan egin nuen partaidetza nahiko ondo egon zela uste dut, eta oraindik hirugarren olinpiada batzuetara itzultzeko grina indartsua daukat.

- ZEIN DA GIMNASTA BATEN EZAUGARRIRIK BALIOTSUENA?

- Gimnasta batek oso osotua izan behar du zentzu guztietan. Teknika oso garrantzitsua da aparatuen menperakuntzaren bidea horretan dagoelako. Baina, batez ere, gimnasta batek oso setatia izan behar du. Kirol guztietan bezala, egunez egun lan egin behar da eta egunero zortzi orduz entrenatzeak nekatu egiten du. Baina benetan betetzen zaituenean ahaleginak merezi du.

GERO ETA ZAILAGO

- EZ DUZU USTE GIMNASIA ERRITMIKOA GEHEGIZKO ELITISMORANTZ BIDERATZEN ARI DELA? ZERK EGITEN DU ZURE ABURUZ GIMNASIA EDERRAGO, ZAILTASUN TEKNIKOAK EDOTA ALDE ARTISTIKOAK?

- Orain gutxi kaleratu den kodigo berriak gimnasia erritmikoa kalteztzen duela iruditzen zait. Lehen, minutu eta erdiko ariketa batean 15 zailtasun sartu behar bagenituen, orain, kodigo berriarekin, 30 egin behar ditugu. Eta minutu eta erdi, hain da denbora tarte motza! Ariketa amaitzen duzunean ezin duzu ezta hitzik egin ere, nekea gehiegizkoa da. Hainbeste zailtasun sartzeak ez du gimnasiaren alde artistikorako leku materialik uzten, eta horrek gure kirolaren edertasuna asko kaltetzen du. Dena dela, badirudi kodigoa leunduko dutela, eta dantzak toki gehiago izatea espero dut.

- BENETAN BEHARREZKOAK AL DIRA GORPUTZ ARGAL ETA LUZE HORIEK GIMNASIA ONA EGITEKO? PISUAREKIN ARAZORIK IZAN AL DUZU NOIZBAIT?

- Gauza asko entzun dira honi buruz: ez dugula jaten, gosea pasatzen dugula... Ez da egia, nire kasuan ez, behinik behin. Egia da gimnasta guztiok adin zailen bat pasatzen dugula. Zure gorputza aldatzen denean zaindu beharra dago, loditzea errazagoa delako. Baina, adibidez, nire gorputza orain asko egonkortu da eta pixka bat zaintzearekin, eta benetan nire beharretarako elikatzen nauten gauzak jatearekin bakarrik nire horretan mantentzen naiz. Lehia-



FITXA TEKNIKOA

- 1995: Espainiako txapel-duna bakarkakoan
- 1996: aurrekoaren berro-nospena
- 1996: 9. tokia Atlantako Joko Olinpikoetan
- 1998: 6. tokia Sevillako Munduko Txapelketan
- 1999: 5., Europako Txapelketan eta lehenengo Espainiakoan
- 2000: 9. tokia Sidney-ko Joko Olinpikoetan
- 2001: 6. tokia Madrilgo Munduko Txapelketan

keta garaian “kapritxoak” ere ematen dizkiot neure buruari, egiten duzun lan fisikoarekin den-dena soberan erretzen duzulako. Nik behintzat ez dut arazorik izan, eta horregatik ez nago oso ados hortik entzuten diren zenbait gauzarekin. Hala ere, gimnasia erritmikoa estetikazko kirola da eta irudiak garrantzi handia dauka. Eta gero, gu bezala mugitzeko, salto egiteko eta dantzatzeko ezin duzu gehiegizko pisurik izan, bestela lesioak gerta daitezke-eta.

- ESTATUKO TALDEAN ZAUDE, BAINA

MOTZ - MOTZEAN

- AZKENENGO OPORRAK?

- Gasteizen, gabonetan eta ondoren Kanariar Uharteetan, oso ondo pasa nuen.

- LIBURU BAT ALA PELIKULA BAT?

- Pelikula bat, denbora gutxiago eskatzen duelako.

- KOLORE BAT?

- Urdin argia.

- MUSIKA MOTA BAT?

- Edozein, unearen arabera.

- EUSKARA?

- Den-dena ulertzen dut, baina, etxetik kanpo egonda, hitz egite-rako orduan erraztasun handia galdu dut. Egunen batean berreskuratzeari espero dut.

- AMETS BAT?

Atenas 2004.

GEU ALDIZKARIAREN HARPIDEDUNA HASIERA-HASIERATIK

Arantzabela ikastolako ikasle, bertan zegoela egin zen aldizkariaren harpidedun, ordutik Gasteizen, gero Madrilan eta egun Bartzelonan jasotzen jarraitzen duela.

...BERE HIRIA ETA EUSKARAREKIN HARREMANETAN JARRAITZEKO NAHIA ETA GOGOIA...

Betiko!, Almudena, eta zorte on zure ibilbide maldatsu horretan!

MADRILEN EGON BEHARREAN BARTZELONAN ETA BAKARRIK ENTRENATZEN ARI ZARA. ZER GERTATZEN DA?

- Bai, une honetan Bartzelonan nago, Iratxe, nire entrenatzailearekin. Espainiako federazioan une honetan ez dago selekzionatzailearik eta, horregatik, nire kabuz entrenatzen ari naiz. Baina, selekzionatzailearik egon bezain laster Madrilgo kontzentrazioetara joango nintzateke, nire egoitza Bartzelonan izaten jarraituko nukeen arren. Sidney-ko Joko Olinpikoak izan zirenetik ez da selekzionatzailearik egon eta

zaila da postua betetzea...

- EUSKAL SELEKZIOAN PARTE HARTUKO ZENUKE?

- Bai, noski. Izan ere, urtero Euskadi-Katalunia txapelketa egiten da eta beti parte hartu dut horretan. Ni beti euskal gimnasta bezala lehiatu naiz, euskal gimnasta naiz-eta.

8 ORDU EGUNERO**- NOLAKOA DA ALMUDENA CID-EN EGUN BAT?**

- Astelehenetik larunbatera entrenatzen dut eta igandeetan atsedena egiten dut, eskerrak! Goizeko 8etan esnatu, gosalduta eta 9:30etan gimnasioan nago. Normalean ordubata eta erdietan edota ordubietan amaitzen dut eta arratsaldean beste lau ordu egoten naiz. Igandeetan lagunekin egoten naiz, pelikularen bat ikusi, kanpoan afaldu... baina era lasaian, hurrengo eguna gogorra izango da eta astea nekaturik hastea ez da oso gomendagarria.

- OSO GOGORRA...

- Bai, baina behin ohitzen zarela... Gainera, oso pozik nago egiten dudarekin! Hau da duela urte asko egiten ari naizen bizitza mota eta une honetan halakoa izan behar du. Lehiaketa uzten dudanean nire bizitza aldatu egingo da eta gauza berrietara ohituko naizela ziur naiz.

- BAINA EZ DITUZU ZURE ADINEKO GAZTEEK EGITEN DITUZTEN GAUZAK EGITEA FALTAN BOTZATZEN?

- Batzuetan bai, baina badakit,

beranduago izan arren, gero gauza horiek guztiak egiteko aukera izango dudala, horregatik ez nau kezkatzen. Gustatzen zaidana egiten ari naiz eta hori asko da.

- POZIK ZAUDE, BERAZ, ZURE BIZITZAREKIN... UNERIK GOGORRENAK?

- Etxetik 14 urterekin joan nintzen eta hasierako urtean nire familia ondoan ez izatea oso gogorra egin zitzaidan. Baina, tira, ohitzen zara eta gainera hemen ere ez nago bakarrik, lagunak dauzkat.



GASTEIZTARROK urtean
39.121 miloi pezeta
ordaintzen dugu
HONAKO HAUEN MANTENURAKO

ESPAINIAKO ERREGE-ETXEARI 267 miloi pezeta
GERRA MINISTERIOARI 6.459 miloi pezeta
BARNE MINISTERIOARI 4.683 miloi pezeta

Kontzertu Ekonomikoa: MORRONTZA EKONOMIKOA

batasuna

Xabier

taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23

vitrales



BEIRATE
ESTUDIOA

MIKEL
DELIKA

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

MERKURIO-KADIMOAN
%0a

CEGASA PILAK
INDARTSUENAK
ETA
EKOLOGISTENAK

CEGASA
INTERNATIONAL
ALCALINA



CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

BAR
KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO.
143883



GASTEIZ

ametsak

Kañamo Denda - Grow shop

C/ Herreria nº38 01001 Gasteiz
Tel-Fax: 945 26 46 43



"Zure ametsak egia
bihurtzen diren tokia"

IBAIZAR BASERRIA, 4
SOJO-ZOLLO · 01478 ARABA
Tel/Faxa: 945 396 686
www.euskalnet.net/eskutxi
E-Mail: eskutxi@euskalnet.net

ITURRIETA
Sagardotegia

TXOTX GARAIARI HELDU!

BETIKO SUKALDARITZA
INGURU ZORAGARRIAN

OSTEGUNETIK IGANDERA
10.00etatik aurrera

Arraga auzoa.

Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO



Eneko Segura, Jesus Obreroko ikaslea

- bat, bertako ikasle gehienak D eremuan baitaude. Hortaz, irudi hori aldatzearen abian jarri zuten txapelketa, Xabi Ormaetxeak jakinarazi digunez. Ideia praktikara eraman zuten eta lehiaketak "harrera oso ona" jaso zuela dio Ormaetxeak, "ustekabea ere hartu genuen, uste baino jende gehiagok hartu baitzuen parte bertso txapelketan", aitortu digu. Kanta txapelketan, berriz, lagun gutxiago aurkezten direla diosku, kantatzea "zailagoa" ei delako.

BERTSOTAN, KALITATE ITZELA

Bertso txapelketak arrakasta handia izan du orain artean eta adibide bat jartzearren, iaz hogeit bat lagun aurkeztu ziren. Espinosaren hitzetan, "maeztutarrek pisu dezente izan zuten aurreneko urtean, sari gehienak beraiek eskuratu zituztelarik, bai eta Bastidako LHko ikasle batzuek ere, haiek ere oso maila ona erakutsi baitzuten". Bigarren urtean, oster, Aramaioko ikasleek hartu zuten parte eta orduan, haiek izan ziren irabazleak. Gasteiztarren kalitatearen inguruan, berriz, Jesus Obreroko ikasle baten maila altua nabarmendu dute bi antolatzaileek, Eneko Segura gaztearena, hain zuzen ere.



JESUS OBRERO IKASTETXEA BERTSOTAN

Edurne Begiristain

Gasteizko Jesus Obrero Ikastetxeak Eskola arteko hirugarren bertso eta kopa txapelketa ospatuko du otsailaren 17an. Jon Aizpuru lelopean hirugarren urtez antolatutako lehiaketa honek gure hizkuntzari eta euskal hezkuntzari indarra ematea du helburu, Xabi Ormaetxea eta Oskar Espinosa antolatzaileek adierazi digutenez. Jesus Obreroko irakasle euskaltzale ohiaren omenez egindako txapelketa honetan Arabako LHko 3. zikloan eta DBHn iaz matrikula egin zuten ikasle guztiak parte har dezakete eta lanak aurkezteko epea otsailaren 5ean amaitzen da. Bertso eta kantuetan seina sari egongo dira, aipatu bi kategorietan banatuta, sariak honakoak izango direlarik: 1. saria, 90,15 euro; 2. saria, 60,10 euro; eta 3. saria, 30,05 euro.

Jon Aizpuru Saria egitearen ideia ikastetxeko Euskara Mintegiari otu zitzaion, gasteiztarren aurreiritzi bat aldatu nahi zutelako, hots, Jesus Obrero ez dela A ereduko eskola

Gasteiztarren aurreiritzi bat aldatu nahi zutelako, hots, Jesus Obrero ez dela A ereduko eskola bat, bertako ikasle gehienak D eremuan aitaude

Oraino Jon Aizpuru saria eskuratu ez duen arren, Ikastolen Elkarteak antolatutako bertso txapelketaren irabazlea izan zen 1999an, baita iazko Arabako Eskolarteko Bertsolarien VI. Txapelketan ere.

Bestalde, arestian aipatu bezala, kantan ez da horrenbeste jende aurkezten eta horregatik antolatzaileek jendea animatu nahi dute izena emateko, "txapelketari bizitasun itzela ematen baitio", dio Ormaetxeak.

Azaltzen digunez, hasieran abesti orijinalak kantatzea eskatzen zen, baina hori "zailegia" zela ohartu eta orain kanta ezagunak interpretatzea baino ez da behar. Gainera, norbaitek kanta bat interpretatu nahiko balu eskolak musika jarriko lukeela zin egin digute antolatzaileek. Hortaz ez duzue aitzakiarik txapelketa honetan esku ez hartzeko!



Euskararen aldeko Txirringa Martxa. Jon Aizpuren omenaldia

GEUR



HOZKAILUAN, BULEGOAN, DENDAN, TABERNAN,
SUKALDEAN, GELAN, KARPETAN, AGENDAN,
KONTSULTATEGIAN...

KOKA EZAZU

€	Ptak.	€	Ptak.	€	Ptak.
1*	166	35	5.824	69	11.481 (11.500)
2*	333	36	5.990 (6.000)	70	11.647
3	499 (500)	37	6.156	71	11.813
4	666	38	6.323	72	11.980 (12.000)
5**	832	39	6.489 (6.500)	73	12.146
6	998 (1000)	40	6.655	74	12.313
7	1.165	41	6.822	75	12.479 (12.500)
8	1.331	42	6.988 (7.000)	76	12.645
9	1.497 (1.500)	43	7.155	77	12.812
10**	1.664	44	7.321	78	12.978 (13.000)
11	1.830	45	7.487 (7.500)	79	13.144
12	1.997 (2.000)	46	7.654	80	13.311
13	2.163	47	7.820	81	13.477 (13.500)
14	2.329	48	7.987 (8.000)	82	13.644
15	2.496 (2.500)	49	8.153	83	13.810
16	2.662	50**	8.319	84	13.976 (14.000)
17	2.829	51	8.486 (8.500)	85	14.143
18	2.995 (3.000)	52	8.652	86	14.309
19	3.161	53	8.818	87	14.476 (14.500)

20**	3.328	54	8.985 (9.000)	88	14.642
21	3.494 (3.500)	55	9.151	89	14.808
22	3.660	56	9.318	90	14.975 (15.000)
23	3.827	57	9.484 (9.500)	91	15.141
24	3.993 (4.000)	58	9.650	92	15.308
25	4.160	59	9.817	93	15.474 (15.500)
26	4.326	60	9.983 (10.000)	94	15.640
27	4.492 (4.500)	61	10.150	95	15.807
28	4.659	62	10.316	100**	16.639
29	4.825	63	10.482 (10.500)	200**	33.277
30	4.992 (5.000)	64	10.649	300	49.916 (50.000)
31	5.158	65	10.815	400	66.554
32	5.324	66	10.981 (11.000)	500**	83.193
33	5.491 (5.500)	67	11.148		
34	5.657	68	11.314		

€	Ptak.	€	Ptak.	€	Ptak.
0, 01*	1, 66	0, 07	11, 65	0, 40	66, 55
0, 02*	3, 33	0, 08	13, 31	0, 50*	83, 19
0, 03	4, 99 (5)	0, 09	14, 97 (15)	0, 60	99, 83 (100)
0, 04	6, 66	0, 10*	16, 64	0, 70	116, 47
0, 05*	8, 32	0, 20*	33, 28	0, 80	133, 77
0, 06	9, 98 (10)	0, 30	49, 92 (50)	0, 90	149, 75 (150)

• ** BILETEAK *TXANPONAK • (...) kopuru borobilua



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



eusko
alkartasuna
www.ea-euskadi.com

arabarrok euskarari BAI



www.gazteabertzaleak.com



ERROTA

HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 – GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

BAT, BI, HIRU...

AKZIOA!

Josune Velez de Mendizabal

Gasteizko Kortada, film laburren emanaldia, amaitu eta jendeak *monoa* balu, labor hitza entzun eta proiektzioa gauzatu baino ordu erdi lehenago aretoko atean zain da; ez da gutxiagorako ere, Gasteizen arte honekiko grina gero eta handiagoa baita.

Hemen ditugu lau zuzendari gazte, iaz Montehermosok eskainitako ikastarora apuntatu eta euren gidoiak ekoizteko aukeratuak suertatu direnak. Iragan abenduaren 19an estreinatu zituzten euren lanak, eta hauek ikusteko irrikitan zegoen jendez bete zen aretoa. La Biblioteca, Huesos eta Contrarreloj izan ziren bertan aurkeztu "labur-rak", baita azken bi hauen making off-ak ere; emaitza, berriz, barre-ak, emozioa eta, nola ez, txaloak, txalo zaparrada handia.



Kortadako zuzendari gazteak, Imanol Ortiz, Amaia Gorostiza, Estibaliz A. eta Naiara Seara

Argazkiak: Edorta Sanz eta Enrique Garcia

IMANOL ORTIZ LOPEZ - "HUESOS"

- Bilbon jaioa
- Ikasketak: Filologia hispanikoa
- Ikus-entzunezkoetan eskarmentua: Ikus-entzunezko komunikazioa ezin ikasi baina Imanolek mundu hau oso gustuko duela ezin da ukatu. Imanolek lehenengoz izan du labor bat egiteko aukera; gidoia prestatu eta aurrera! "Ikasketa prozesua itzela izan da otsaila eta abendua bitartean batez ere, ikastaroan gidoigintza, zuzendaritza eta produktzioa irakatsi digute, eta gero filmaketa ikaragarria izan da, asko ikasten da".
- Laburraren izenburua: **HUESOS**. Adin nagusiko bikote baten istorioa da, anai-arrebak dira eta beharrez batera bizi behar dute; amorrua da nagusi elkarrenganako harremanetan, gauzak horrela, arrebak nazkatuta dagoela gizona hiltzen saiatzen da, nola eta oliba hezur batekin.
- Iraupena: "Montehermoso-n egin genuen ikastaroaren izenburua Nola egin bost minutuko kortoa den arren, nireak 10 minutuko iraupena du, luzeena da, gainera kredituentzat 3 minutu ditu, prologoa eta epilogoak barne".
- Aktoreak: Txema Blasco aktore oso ezaguna; emakumea, berriz, ez da hain ezaguna baina aurretik ere kortoetan aritu izan da: Maru Solano.

ESTIBALIZ A. RUIZ DE ERENTXUN ETA NAIARA SEARA "LA BIBLIOTECA"

- Gasteizkoa eta Barakaldokoa, hurrenez hurren.
- Ikasketak eta eskarmentua ikus-entzunezkoetan: Ikus-entzunezko komunikazioa amaitu eta orain master bera gautzen ari dira biak. Klasetik elkar ezagutzen bazuten ere, 2.000. urtean Montehermoso-n gauzatutako ikastaroari esker bi neska hauek batera aritu dira elkarlanean. Estibalizek dionez, "nire kortoa orain dela bi urte ere hautatu zuten, eta bakarrik egiteak beldurtu ninduen, hori dela-eta Naiarari proposatu nion batera lan egitea. Karreran egindako kortoaz gain, Café solo eta labor instantaneo ere egin ditugu, beraz, hau gure laugarren kortoa da".
- Laburraren izenburua: **LA BIBLIOTECA**. Liburutegian dauden hiru pertsonajeren pentsamenduak entzuten dira, baina ez dira ausartzen pentsatzen dutena egitera...
- Iraupena: 8 minutukoa. "Gure ideia bost orritan kontatu behar izatea eta gero filmaketa 3 egunetan egin behar izatea oso zaila izan da, "limitera" ekoiztu behar izana oso zaila iruditu zaigu".
- Aktoreak: Maite Bayon, Gaizka Ugarte eta Javier Anton.

BALANTZA DANTZAN

Labor bat ekoiztea ez da gauza makala, zuzendari gazteek lan handia egin behar izan dute beren produktuaren emaitza amaitua eta landua ikusteko. Montehermoso Kulturunea-k baliabide teknikoak eskuratu dizkie, baita Mendizabala Institutuak ere, baina hala eta guztiz ere hori egitasmo osoaren zati bat besterik ez da izan. Imanolen aburuz, "aholkuak eman dizkigute, baita edozein laguntza gure eskura jarri ere, kamara, fokuak, teknikariak..., baina gainontzeko guztiarekin norberak bizimodua atera behar du". Estik eta Naiarak eskainitako produkzio baliabideak eskertzen dituzte asko ikasten delako, "denetaz arduratu behar duzu eta ez da erraza baina asko ikasten da". Amaiak, berriz, azpimarratzen du, 20 eta 30 bitarteko jende multzoa mugitzea ez dela erraza: "Laguntza eskatzen duzunean lagunena daukazu baina mundu hau ez dutenez ezagutzen zaila da ulertaraztea, dena den, beren intenziorik onenarekin etortzen dira eta hori beti eskertzen da".

Honez gain, zazpigarren artea den honetan gehiago sakondu nahian esperientzia honek izan dituen alde ona eta txarraz galdetu diegu. Horrela erantzun ziguten:

• AMAIA GOROSTIZA:

- ALDE TXARRA: "Hiru egunetan egin behar duzunez estresa pilatzen duzu, eta hainbeste gauza dituzu buruan beti dagoela zer edo zer ahaztu egiten zaizuna. Bestetik, hainbeste buelta ematen dizkiozu proiektuari, etxean, muntajea, irakurri behin eta berriro... azkenean beste batek ikustea behar duzula".

- ALDE ONA: "Asko ikasten duzu, baina argi dago gauza bat dela buruan duzuna, beste bat egiten duzuna eta azkenik ateratzen dena, guztiz ezberdinak dira; baina argi dagoena ere bada lagunak behar dituzunean hor daudela".

• ESTI ETA NAIARA:

- ALDE ONA: Estik aipatzen duenez, "oraingo honetan teknikaz arduratzeaz bainoago batez ere aktoreekin egon naiz eta asko gustatu zait".

- ALDE TXARRA: Antza denez, Naiara Barakaldon izan denez oraingo honetan Estiri egokitu zaio baimenak eta beharrezkoak diren paperak lotzea; hortaz, "paperekin alde batetik bestera egotea izan da laburraren arlo neketsuena".

• **IMANOL ORTIZ:** "Laburmetraje guztietan bezala tentsioa areagotu da, denbora gutxi baikeuen, lehendabiziko esperientzia izan da bertan parte hartu dugun gehienontzat..., baina hamar hilabete hauen ostean pentsatzen jartzen zara eta bertatik gogoratzen duzun guztia positiboa da..., dagoeneko badira hainbat egitasmo esku artean...".



Euskarazko laburmetrajeak non ote?

Laburmetrajeen ekoizpena gori-gorian dago ikus-entzunezkoen baliabideak gustuko diuzten euskal gazteen artean. Hala eta guztiz ere, Araban nahiz Euskal Herriko gainontzeko leku gehienetan laburmetrajeen hizkuntza nagusia gaztelera da; korto gutxi euskaraz grabatzearen arrazoiak bakarra omen da: euskarak ez du saltzen. "Produktoa oso ona izan daiteke baina segituan itzuliko dute eta, hortaz, jendeak hasieratik gaztelaniaz egin nahiago du", azaltzen digu Amaiak. Nahiz eta elkarriketatutako gazteek euskaraz jakin hiru ekoizpen hauetatik bat ere ez da euskaraz grabatu; bi erdaraz eginikoak dira eta bestea, berriz, mutua. Aurkezpenetan, haatik, euskaraz entzuteko aukera izan genuen.

AMAIA GOROSTIZA BASTERRETxea "CONTRARRELOJ"

- Elgoibarren jaioa
- Ikasketak: Ikus-entzunezko komunikazioa
- Ikus-entzunezko eskarmentua: Bere lehen laburra Leioan egin zuen kurtsu bukararako proiektu bezala. Karrera amaitu eta Bartzelonara joan zen, bertan zuzendari-zako ikastaroa egin zuela, baita "Tras la piel" laburrean parte hartu ere. Laz, jada Gasteizen "El dinero no da la felicidad" bat-bateko laburra egin zuen. Bere azken lana Montehermoso-n aukeratu suertatu zen hau dugu.
- Laburraren izenburua: **CONTRARRELOJ**. Amaia-ren laburra erbia eta dortokaren fabulan oinarrituta dago. "Patuari buruz aritzen naiz: ikasle batek azterketa bat dauka baina predestinatuta dago ez egitera, bidean dortoka batekin gurutzatzen da, hori bere patua da. Fabula ez dut bere osotasunean hartu, laburrean ikasleak eta dortokak ez dute abiapuntu bera, abiapuntu kontrajarriak baizik...; ikaslearen presioak, azkar eta presaka ibiltzeak alegia, azterketa ez egitera eramaten du".
- Iraupena: 6 minutukoa. "Oso gogorra izan da kokaleku desberdinak dituen gidoia hiru egunetan planifikatzea, leku batetik bestera mugitzen egon behar duzu, goizean toki batean eta arratsaldean bestean, eta hurrengo egunean berdin...; `desmadre` bat da, baina azkenean itxuroso gelditu dela pentsatzen dut".
- Protagonistak: Unai Gartzia, Unai Otxoa de Txintxetru, Feliciano Gutierrez, Eduardo Iñiguez de Heredia, Kike Garcia, Rakel Garcia Ajofrid eta dortoka.

AURPEGIAK BILATZEN DIRA

"Casting" dioten horman itsatsi paper puska batek gero eta jende gehiago erakartzen du, egunetik egunera arte honekiko interesa handiagotzen ari baita. Gizakiok geure burua zinema munduan ikustea bilatzen dugun heinean, adin ezberdineko lagunak gerturatzeko dira frogak egitera...; beraiek eskaintzen dutena nahi ote casting-ek?

Naiarak, Estik eta Amaiak Montehermoso-n eginiko deialdira 60 bat lagun joan ziren. Neska hauek euren film laburren protagonistak izango zirentzako frogak desberdinak egin zituzten. "Neska eta mutila behar genituen, hautatutakoak ezagutzen ez genituen arren, oso ondo moldatzen ziren paperekin. Gauza da, mutilaren ezaugarriak oso mugatuak zirela eta honek zailagoa jarri zigun aukeraketa, gure protagonistak gupoa izan behar baitzuen", azaltzen dute La Biblioteca-ko zuzendariak. Amaiak casting-a egin zuen arren, berak aukeratu protagonista laguna da: "berak ere casting-a egin zuen, baita oso ondo egiten zuelako pasatu ere. Gerora pentsatu nuen bera etxean edukita errazagoa izango zela entseiatzea eta gainera proiektua hasieratik ezagutzen zuen". Imanolek, berriz, denbora faltagatik edo, argi zeukan nor izango zen bere laburraren pertsonaje nagusia: "Txema Blascoren telefonoa eman zidan pertsona berak emakumezkoarena ere eman zidan eta horrela laburrari ekin genion".

PASARTEAK PASA

Baina ezin egon daiteke laburrik anekdotarik biltzen ez duena. Hona hemen, beraz, zuzendari gazteei gertatutako gora-beherak:

Naiara eta Esti, Antonio Rivera Arabako Campus-eko errektoreari baimena eskatu zioten liburutegiko aretoan grabatzeko, dena adostuta zegoen jada eta neskek ekipo guztia deskargatu zuten bertako pabilioian. "Nortzuk zarete zuek?", galdetu zien ateko tipoak..., "guk kortoa grabatzera gentozela esan eta berak zein korto zen galdetu zigun, inork ez zekien bertan laburra grabatu behar genuenik, Riverak beste gela batean ipini zuen oharra eta, azkenean, dena argitu zenean behar genuen gelatik jendea bota behar izan genuen..., oso sentsazio txarra izan zen, inork ez jakitea zertara gindoazen...".

Imanolek, berriz, filmaketaren bigarren egunean jasan zuen hasberriaren zortea: "Badago eszena bat non emakumeak platera lurrera botatzen duen eta platera apurtzen den; horrela egin eta gero plater bakarra genuela konturatu ginen, sekuentzia gaizki atera zen eta berriro grabatzeko plater berdina ez genuenez topatu pegatu behar izan genuen, nahikoa tentsioa izan zen egun horretan".

Contrarreloj film laburraren hainbat lokalizazio Arriagako parkean egin ziren. Handik pasatzen zen jendearen ikusmira erakartzen zuen grabaketak eta sekuentzia artean taldeak atsedena zuela, ume eta gazte talde bat autografoak eskatzera gertutatu zen eta taldekide guztiei eskatu zizkieten sinadurak. Batek daki inoiz ume horiek eskaturiko sinadurak milioiak balioko dituzten!



“Lagunekin irla `paradisiako´ batera joango nintzateke”

OLABIDEN IKASKETAK BURUTU ETA ORAIN INGENIARITZA KIMIKOAREN BIGARREN KURTSOA GAUZATZEN ARI DA BILBON 19 URTEKO GAZTE GASTEIZTAR HAU. OIHANEK LAGUNEK KONBENTZITUTA EGIN ZION MISS ARABA LEHIAKETARI IRAGANEKO ABENDUAREN 28AN, HORTIK AURRERA URDURITASUN HANDIA, ETA EPAIMAHAIAREN ERANTZUNA BERE ONERAKO IZANIK BERA DUGU AURTENGO IRABAZLEA. BERAREKIN ARITU GARA HIZKETAN, BAINA MODA, EDERTASUNA ETA PASARELEN INGURUKO GAIEZ MINTZATU BEHARREAN GEU-RE HARIRA JOAN GARA, GALDERA LABUR ETA ZUZENEKIN OIHANE ZERTXOBAIT GEHIAGO EZAGUTZEKO ASMOZ.

Josune Velez de Mendizabal

- **DUZUN BIZIORIK HANDIENA?**
 - Lagunekin egotea
- **ETA BERTUTEA?**
 - Jendea nirekin ondo portatzen bada, ni ere beraiekin ondo portatzen naiz
- **ZER ESKATZEN DIOZU BIZITZARI?**
 - Pozik bizitzea
- **JENIROIK BA AL DUZU?**
 - Bai, batzuetan bai
- **NOIZ KALERATZEN DUZU?**
 - Norbaitek nire kontra egiten duenean
- **GEU ALDIZKARIAREN BERRIRIK BAI?**
 - Bai
- **EGUNKARI BAT?**
 - Etxean Deia da irakurtzen duguna
- **PELIKULA ONEN BAT?**
 - “Los otros”
- **TELEBISTAKO PROGRAMARIK?**
 - Orain ez dut telebista ikusten
- **AKASO PISUAN EZ DAGO TELEBISTARIK?**
 - Bi bizi garen arren hiru telebista ditugu, baina ez dut ikusten
- **JAKI GOXOREN BAT?**
 - Arraina
- **ZURE GORPUTZEKO ATALIK POLITENA?**
 - Begiak
- **OPORRAK NON ETA ZERTARAKO?**
 - Lagunekin irla `paradisiako´ batera joango nintzateke
- **TXIKITAKO OROITZAPENIK?**
 - Bai... (je,je), hondartzan galdu nintzenean, Benicassim-en uste dut, lau bat urte izango nituen, gurasoek Gurutze Gorrian jaso ninduten...
- **LIBURU GOMENDAGARRIREN BAT?**
 - “Las cenizas de Angela”
- **DENBORA LIBRE IZANEZ GERO, ZER EGINGO ZENUKE?**
 - Gauza piloa..., orain kanpoan bizi naizenez beharba-



da familiarekin egun gehiago egoteko aprobetxatuko nuke

- **GASTEIZEK DUEN ONENA?**
 - Jendea eta lasaitasuna
- **ETA TXARRENA?**
 - Ez dut uste Gasteizek gauza txarrik duenik...
- **EUSKARAZ BIZI AL DAITEKE GASTEIZEN?**
 - Ufff!..., larri,larri..., nik batzuetan lagunekin egiten dudan arren...
- **ZER NAHIKO ZENUKE JENDEAK ESATEA ZU HIL ETA GERO?**
 - Oroitzapen on bat izatea nitaz eta besteei on egin dien pertsona nintzela gogoratzea
- **MOMENTUKO KEZKARIK HANDIENA?**
 - Munduan dagoen bortizkeria, batez ere
- **GOGOKO MUSIKARIK?**
 - U2 taldeak egiten duena
- **KANTA BEREZIREN BAT?**
 - Talde honek egiten dituen edozein gustuko dut baina nire favorittoa, “With or with out you”
- **KOLORERIK GUSTUKOENA?**
 - Urdina
- **KIROLEN BAT?**
 - Bai, saskibaloia, ikastolan hasi nintzen, Urgatzin, eta gero Euskarrin ere ibili naiz, baina orain utzi behar izan dut



ORTOPHONK...

...LEHIAKORTASUNIK EZAGUTZEN EZ DUEN TALDEA, MUSIKAREN PODIUMEAN

Ortophonk taldeko kideen eskarmentu musikala ez da nolanihi lortzen, eliteko zazpi musikari hauek zerurantz gidatzen dituen ibilbide musikala oparo baten mezulariak baitira. Hasier Oleaga bultzatzaile, Ortophonk-eko jazz eta funk doinuak kontzertuan 2000 urtean Katangan eginiko taldearen agerraldian entzun ziren lehenengoz; ordutik, Euskal Herri osotik eskaini dituzte saioak, eta dagoeneko gasteiztarren musikak arrakasta itzela lortzen du, doan edozein txokotara joanda ere. Gauzak horrela, otsailean orain arte ibilitako abestiak biltzen dituen diskoa kaleratzen dute, etxeko musika apalean ezinbesteko bitxia.

MIKEL "PARRUCHO"

Ortophonk taldeko D.J eta Sampler-a dugu "Parrucho". Bruno Martelli Trio delakoa-ren kidea izandakoa. Yo gano Tu pierdes-eko "Los planes secretos del doctor No" disko bilduman partehartzaile izan zenak Cubo eta Atomoong bezalako egitasmoetan ere kolaboratu du. Urteak dira Mikelek plater eta entsaladen artean lan egiten duela; egun "Cairo Stereoclub"ean dihardu.

**IVAN "PATXEI"**

"Zaratak" eta gitarra Ivanen esku dira Ortophonk taldean. Rock and Roll doinuek bultzatuta hasi zen musika munduan. Boogaloo eta Combossa taldeetako kide eta sortzaile, orain azken talde honekin, Ortophonk eta Centauro dendarekin ekiten dio bizitzari.

**DANILO FORONDA**

Baxujolea Ortophonk-en, eta gitarrarekin aritzen da "In Albis" eta "The Freetangas" taldeetan. Ez musika eskolarik, ez ikasketa musikarik ez du behar izan Danilok musika munduan murgiltzeko; izan ere, hamahiru urte-tik ekin zion erritmo onari, eta mutil honek daraman ibilbidea ez da makala, ez.

**VICTOR GARCIA DE LA TORRE**

Abesten, teklatuak jotzen eta perkusioan badaki Victorrek, oso modu profesionalan gainera. Bekereke, Porpol, Damian Muñoz Danza, Moare eta beste hainbeste taldeetan ere aritu da dantza eta antzerki lane-tan. Potato taldeko perkusiojolea Erre que Erre diskoan. La Factoría Accidental del Silencio taldeko Stronk ikuskizunaren sortzaile eta musikari. 21 Japonesas musika taldeko perkusionista izanak, Nieves Oca Trío, Jamila Trío eta Asian Food Store bezalako taldeetan ere kolaboratu izan du. Egun, TAEko (Taller de Artes Escénicas) irakaslea da 'Ahotsa' eta 'Perkusio afrolatinoa' ikasgaietan. Honetaz gain, KEA musika garaikideko kide eta Ortophonk taldeko perkusiojolea da.



98/99 ikasturtea izango zen Betagarriko baterajoleak taldea utzi eta kide berria fitxatu zutenean. Hasier Oleagak hainbat kontzertu egin zituen talde gasteiztarrarekin, baina Betagarriren bigarren diskoa izango zena grabatu ere. Baina taldeko bateria betiko izatea proposatu ziotenean Hasierrek argi zuen Bartzelonara joan nahi zuela bertako musika eskolan ikastera. "Bartzelonan hemen baino lan gehiago dago, bertan badago nire egoera bereko jende asko eta beraiekin jotzen ikasten duzu".

"Energia harria jendeari eta jendeak"

-ZUEK MUSIKA INSTRUMENTALA EGITEN DUZUE, EZ AL DUTE HITZEK ZER ESANIK ZUEN DOINUETAN?

Samplerra erabiltzen dugu gure musikan baina ahotsa ez dugula erabiltzen esango nuke..., hitzak ez dauka garrantzirik, garrantzia musikak berak dauka. Garrantzitsuena erritmoa da, sartzen baldin bazara lokal batean eta Ortophonk jotzen ikusten baduzu bere erritmoak harrapatuko zaitu, hitzak erritmoaren pean daude..., zazpi gara eta zapiak gaude erritmoa egiten, inprobisazio zatiak daude, saxo, gitarra eta teklatuarentzat, baina helburua jendeak dantza dezan erritmoa egitea da.

-ETA HELBURUA LORTZEN DUZUE ZUEN SAIOETAN?

Kontzertuetan nik flipatzen dut, energia sortzen saiatzen gara eta batzuetan lortzen dugu -batzuetan, zeren eta musika horrelakoa da-, sortzen dugun energia harria bailitzan botatzen diogu jendeari eta jendeak bueltatzen digunean flipantea da. Gaztetxean egon ginen azken aldian harrigarria izan zen; hemen Gasteizen ez dakit zer gertatzen den baina jotzen dugun bakoitzean jendea dantzan, saltoka dabil..., harrigarria da!

-BERAZ, OSPEA LORTZEN ARI ZARETENIK EZIN UKATU, AKASO ORAIN ARTE ZUEN ANTZEKO ESKAINTZARIK EZ ZEGOEN...

Nik uste dut Euskal Herrian horrelako proiekturik ez dagoela, zazpi musikarirekin, dantza egiteko taldea... Betagarri badago baina hau beste musika mota bat da, giro ezberdinak nahasten ditu; izan ere, musikari lotuta betiere giro bat edo beste baitago.

DISKO BERRIA ETA LEHENA!

Ortophonk taldeak aurrez bazeukan disko batean bere kantal biltzeko ideia, baina Villa De Bilbao lehiaketan bigarren saria irabazi izanak grabaketa egitera are gehiago bultzatu zituen. "Bertan agertzen diren kanta guztiak guk egindakoak dira, gertatzen dena da samplerra erabiltzen dugun neurrian gainontzeko taldeetako zatitxoak nahastu egiten ditugula gure musikarekin". Otsailaren zazpian Arabako Campus-eko Pabilioian aurkeztuko dute euren lehendabiziko lana den hau. "Katangan grabatu dugu, nahasketak Nandok egin ditu, baina oraindik ez diogu disketxeari saldu. Ruper Ordorikak Madrilen jotzen duenean Nando ere bertara joango da eta orduan dena mugituko du, dena hitz eginda dago. Bestetik, Madrileren goaz kontzertuan martxoan eta hori oso inportantea izango da guretzat".

Baina Ortophonk taldea lasai dago, izan ere, eta Hasierrek azpima-

Bartzelonatik bueltan Hasierrek bazerabilen ideia bat buruan: "Nik talde bat egin nahi nuen, eta baneukan pentsatuta zeintzuk hartuko zuten parte bertan. Dani In Albis taldetik ezagutzen nuen eta berak baxua jo zezan nahi nuen, Ivanek kitarra joko zuen eta hori dj edota sampler-arekin nahastu nahi genuen, Parrucho igo zen proiektura eta horrela jarri ginen martxan". Victorrek, Nandok eta Raulek taldea guztiz osoa izan zedin "Gasteizen guztiak ezagunak garen heinean" Ortophonk egitasmoa borobiltzen lagundu zuten. Hasierrekin honen inguruan mintzatu gara, euskaraz gainera.

**RAUL ROMO ROMIX**

"Pablo Sarasate" Iruñeko Musika Kontserbatorio Maila Gorenekoan (Conservatorio Superior de Música) lortu zuen Saxo irakasle titulua Raulek. Orduetik, alde batetik bestera ibili da Raul bere ikasketak osatuz: Arrasaten,

Granadan, Bostonen... Boogaloos eta Allnighters taldeetan, baita Air Bag filmean ere, bere musika-kutsua laga du -karrera amaiezina gasteiztar honena!-. Egun, Luis Aranburu Musika Eskolako irakaslea eta zuzendaria da, eta ez hori bakarrik, zeren Luis Aranburu Big Band-eko sortzailea eta zuzendaria ere bada. Bestetik, Ortophonk-en saxoa jotzeaz gainera, Sustrajazz, Tribu Chaman eta Combossa-n ere aritzen da.

HASIER OLEAGA

Hamalau urterekin klaseko lagunekin musika taldea osatu eta egun musikarekin harremanetan jarraitzen duen bakarra dugu Hasier.

Ikastolako futbol taldean Dani ezagutu eta elkarren arteko zaletasunak zerikusi handia zeukala jabetu ziren; hortaz, In Albis taldea sortu zuten, zeinak pixkanaka-pixkanaka gazte hauek musika munduan ezaguturazi zituen; beranduago, eta hartueman honi esker, Allnighters taldea jaio zen. Ondoren, Boogaloos eta Betagarri taldeetan aritu da Hasier; orain, berriz, Ortophonk-en. Dena den, Bartzelonako Musika Eskolan ere izan da gaztea eta bertan ikasketak amaitu ez dituela bueltatzeko asmoa ere badu.

NANDO DE LA HOUSE

Nando de la Casa musika munduan ezaguna oso den pertsona dugu. Disketxe nahiz zine ekoizpen ugariarekin aritu da lanean gasteiztarra, hala nola, eta hurrenez hurren: Todo va bien, Araba viento en pop, Korroskada, Ez da posible, Potato, Amaia Uranga, Ruper Ordorika eta Mugalaris, Itoiz, Angel

Celada, Victor Celadarekin izan da lanean, besteak beste. Zinerako eginko lan musikalen artean, berriz, Nandok bere ikutu pertsonala utzi du ondorengo filmetan: Adios pequeña, Cuernos de mujer, La Regenta, Así en la tierra como en el cielo, Airbag, Secretos del Corazón eta Año Mariano.

bailitzan botatzen diogu bueltatzen digu"

"Gaztetxean egon ginen azken aldian harrigarria izan zen" "Bertan agertzen diren kanta guztiak guk egindakoak dira"

-ZENBAIT KASUTAN GERTA DAITEKE HITZEK PENTSAMOLDEAREN ISLADA IZATEA, KEXA SOZIAL, KEXA POLITIKOA, MAITASUNA, TRISTURA, EDONOLAKO SENTIMENDUAK... AKASO HORREGATIK ERABAKI ZENUTEN ZUEN KANTETAN LETRARIK EZ EGOTEA?, HALA NOLA, MERKATU ZABALAGOA IZAN DEZAZUEN?

Gure proiektuan musika hitzik gabe ulertzen dugu, kanta batean Nandok eta

Ivanek koruak egiten dituzte eta beste batean nik ingelesez abesten dut rap bat, baina hori besterik ez. Bestetik, gure musika ahal den gehien zabaltzea gustatuko litzaiguke, eta talde honekin arrakasta izango genuke European, han hemen baino gehiago entzuten baita, nahiz eta orain hemen musika mota hau sartzen ari den.

-BARTZELONARA BUELTATZEKO ASMOAK BADITUZU, TALDEKO ARIMAK ORTOPHONK UTZIKO AL DU?!

Ivanekin hitz egin dut eta berak badaki Bartzelonan Eskola hori dagoela, baita nik zer dudan gustuko ere..., ez dakit..., aurrekoan ere Bartzelonara joan eta etortzen ibili nintzen...



rratzen digunez, "Oscar Cubillo musika kritikoa zorrotza izanik oso begi onez ikusten gaitu eta tipo honek esaten duena guztiz garrantzitsua da. Harrituta gaude izaten ari garen arrakastarekin".

Bar Puerto taldearekin ari da azkenaldi honetan antzokietan Hasier jotzen, Ortophonk-ek jotzen duen tabernekin konparatuz batera gazteak alde handia dagoela dio: "Antzokian jotzen dugunean hasi baino lehen jendea isil-isilik dago eta ni ez nago ohituta horrelakoetara, tabernetan ez baita horrelakoa".

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

XABIER MIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97

*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*



Zure denda erotikoa

SEX



Sexua
euskaraz
bizi



GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan

Tel:945 15 42 60

DONOSTIA

OIARTZUN

adaka 
madinabeitia

**Floridako
altxorra !**

35

Bagare Euskal Tokiak Arabako ikaste-
txeetako ume eta gazteei zuzenduriko
bere X. Ipuin Lehiaketa antolatuta du.

Aurreko urteetan bezala, lehiaketa
honetan Arabako ikasteetxetako hau-
rrek eta gazteek (6-16 urte bitartekoak)
parte har dezakete.

Lehiaketan 3 multzo izango dira:

- Lehenengo multzoa: 6-8 urte bitarte-
ko haurrek parte hartuko dute, ondo-
rengo gaia jorratuz (Lehen Hezkuntza
1., 2. eta 3. maila): "Krokodilo bat
komunean"

- Bigarren multzoa: 8-12 urte tarteko
ikasleei zuzenduta dago (Lehen
Hezkuntza 4. eta 5. maila), gaia honako

hau izanik: "Auzokoak zarata gehiegi
egiten du"

- Hirugarren multzoa: 12-16 urte tarte-
ko ikasleei zuzenduta dago (DBH 1., 2.,
3. eta 4. maila), honako gaia jorratuz:
"Ez dut dirurik behar bizitzeko"

Ipuinak euskara hutsez idazteaz gain
bi eta bost orrialde bitartekoak izango
dira. Idazkiak ordenagailuz edo letra
garbiz egin behar dira. Lanarekin bate-
ra idazlearen honako datu hauek igorri
behar dira: izena, abizena, helbidea,
telefonoa, adina, ikastetxearen izena
eta helbidea. Lanak gutunazal baten
barruan sartu eta ondorengo helbidera
bidali 2002ko maiatzaren 4a baino

lehen: Bagare Euskal Tokia, Aiztogile
kalea 72, 01001-Gasteiz (Euskal
Herrian Euskaraz-eko bulegoan
gaude).

Idazleek lan bakar bat bidaliko dute.

Aurkezten diren ipuin guztien artean
epaimahaikoek multzo bakoitzeko hiru
hoberenak aukeratuko dituzte, eta
horrela erabaki ezker saritutako ipuinak
medio ezberdinetatik zabalduko dira.
Sarituta suertatzen ez direnak itzuliko
dira sari-emanaldian ala gure bulegoeta-
ra etorrira. Sari emanaldiaren lekua eta
eguna aurretik abisatuko dugu.

Sarituak suertatzen direnek euskaraz-
ko liburu lote bana jasoko dute.

Loteen balioak hauexek dira:

"A" MULTZOA
(6-8 urte)

1.- 30, 05 euro
2.- 18, 03 euro
3.- 12, 02 euro

"B" MULTZOA
(8-12 urte)

1.- 30, 05 euro
2.- 18, 03 euro
3.- 12, 02 euro

"D" MULTZOA
(12-16 urte)

1.- 30, 05 euro
2.- 18, 03 euro
3.- 12, 02 euro

Epaimahaia Bagareko Kultur Taldeko kideek
osatuko dute. Irudimena, estiloa eta hizkun-
tzaren zuzentasuna baloratuko da.
Saritutako lanak, kalitate nahikoa izanez gero,
GEU aldizkarian kaleratuko dira.

I R A B A Z L E A K

"Denbora atzera doa"



TAMARA
OLMOS
CANCHO



JONE
ORMAZABAL
ROZAS



ASIER
GONZALEZ
ZUFIAURRE



OIHANE
SARRIONANDIA
EGUREN



HAIZEA
GALARRAGA
ARRIZABALAGA



ASIER
LANTXO
FABIAN



ION
LUZURIAGA
GONZALEZ

"Gaur eguzkia ez da atera"

TAMARA OLMOS CANCHO

1. SARIA. Ursulinas Ikastetxea-13 urte (2001ean)

"Denbora atzerantz doa", esaldi honi buruz gauza asko esan dezakegu, baina normalean bizitzari buruzko erreferentzia bezala hartzen dugu. Oso esaldi bitxia da, bizitzari begiratzen badiozu egia esaten digu: zenbat eta urte gehiago izan hainbat eta bizitza gutxiago.

Aitonak kontatutako istorio bat kontatuko dizuet:

"Menditik galdutako herritxo batean, duela ehun urte gutxi gora-behera, Mari izena zuen emakume haurdun bat bizi zen. Berari gutxi geratzen zitzaion umea munduratzeko eta oso pozik zegoen, baita bere senarra ere.

Egun zoriontsua ailegatu zen, Mari eta bere senarrak neskatxo bat eduki zuten baina umea ikustean harrিতuta geratu ziren: hura ez zen neska-
txo bat emakume zahar bat baizik, ehun eta hamar urtekoa!

Orduan bere gurasoek bere alaba emakume zaharra izatea posible ez zela esan zieten mediku batzuei, baina medikuek baietz, haien alaba zela, ulertzen ere ez zutela baina konpondu ere ezin zutela. Inork ez zuen ulertzen honako gertaera posible nola zela.

Urteak pasa eta pasatu ziren, eta gurasoak zaharragoak, noski, baina jaiotako emakume zahar hura -Aintzane izenekoa- gero eta gazteago zegoela konturatzen hasi ziren.

Aintzane hogeita hamar urte zuenean gurasoak hil ziren eta hori oso kolpe gogorra izan zen berarentzat: orduan herritik joatea erabaki zuen. Handik aurrerantz inork ez du ikusi.

Aintzanearen bizitza atzerantz zihoan eta hango herritarrek esaten zutenez Aintzane menditik galdu zen desagertu arte. Handik aurrerantz herri-
txo horrek "ATZERANTZ" izena hartu zuen eta diotenez han jaiotzen den jendea atzerantz doa, baina non dagoen Atzerantz inork ez daki".

Honako istorioak izugarritzko amets arraroa dela ematen du, baina aitona honek... orain dela hamar urte zegoena [baino] gazteago dago...

(*Salbuespentxoak salbuespen, ipuinotan ez da zuzenketarik egin,
neska-mutilek idatzi bezala argitaratzea egokiago ikusi delako)

JONE ORMAZABAL ROZAS 2. SARIA
Ursulinas Ikastetxea-14 urte (2001ean)

Atzo oso egun arraroa eta zoragarria aldi berean izan zen niretzat:

Gogoratzen naiz, kobazulo batean su handi baten inguruan esnatu nintzela. Nire ama, aita eta ahizpa nirekin zeuden, baita jende asko ere, izugarritzko ekaitza ari zen kanpoan eta denak beldurturik zeudela iruditu zitzaizkidan.

Hasieran korrika hasi nintzen eta arkaiz handi baten atzean izkatuta nintzen, oso lotsatuta eta izututa nengoen, nire gorputzari so egin nion, ardi baten artilearekin jantzita nengoen, baina laster konturatu nintzen ez nengoela neu bakarrik horrela jantzita. Orduan ama oso hizkuntza arraroaz deitzen hasi zen, eta nik... nik ulertu nion; joan eta oso estu besarkatu ninduen eta negarrez hasi zen: jende guztia kobazuloan horrela zegoen, haien seme-alabak besarkatzen, inoiz berritako ikusiko ez ziguten bezala... Ekaitzarengatik zela konturatu nintzen.

Zahar batek oso abesti tristea abesten zegoen eta munduaren bukaera etortzen zela sentitu nuen. Baina laster euria bukatu zen eta denak oso pozik suaren inguruan dantzatzen hasi ziren. Bat-batean gizon sendo batzuk lantza batzuk harturik kobazulotik atera ziren, eta andreak fruitu batzuekin oso janari arraroak egiten hasi ziren. Umeak korrika atera ziren eta pozaren pozez jolasten hasi ziren makil batzuekin tximeletak astindu nahian. Nire ama fruituen bila joateko agindu zidan eta ni ezer esan gabe beldurturik atera nintzen baso ilunera.

Oso polita zen dena kanpoan, oso zuhaitz garaiak, lore handiak, kolore askotakoak... baina orduan paradisu horretan elefante baten itxurazko animalia handi bat lurtean etzanda ikusi nuen. Hiltzeaz zegoen, gizon sendo haiek zuritu zuten eta. Tristezia handia sentitu

nuen orduan baina ezer esan gabe aurrerantz jo nuen eta marrubi batzuk ikusi nituenean, korrika abiatu nintzen haien bila eta ahal nituenak hartu nituen.

Oso pozik itzuli nintzen eta zer zen nire harri-dura, han, nire aurrean, nire adineko neska haurdun bat ume bat bera bakarrik munduratzeko zegoen. Besteak beren laneetan zeuden ezer gertatzen ez bazen bezala. Ez nekien zer egin eta beldurturik berarengana joan nintzen. Pelikuletan ikusitakoa esan nion, arnas luzeak hartzeko... etabar... eta, azkenean, umea atera zuen baina bera han lurtean geratu zen. Negarrez, umea hartu nuen eta amaren besoetan jarri nuen. Gero desagertu nintzen, apurtuta, ibai batera joan nintzen, nire eskuak eta besoak garbitu nituen eta marrubiak hartuta kobazulora bueltatu nintzen.

Han, gizon sendoek haragi zati handi batzuk zeramatzen haien bizkarretan. Emakumeak egiten ari zirena utzi zuten eta zutik jarri ziren: Beste dantza bitxi batekin ospatu zuten haragi zati horiek. Ni neskarena ahazten saiatu nintzen eta nire amari marrubiak eman nizkion. Orduan neu ere, bai, neu ere hasi nintzen dantza arraro hori dantzatzen.

Dantzatzen bukatu ginenean haragia jaten hasi ginen eta konturatu gabe gaua etorri zitzaigun. Ni, erabat nahastuta, pentsatzen hasi nintzen: atzo etxean nengoela eta egun normala zela, ordenagailuan nebilela, gero kontsolarekin, arratsaldean pelikula zoragarri bat ikusi nuela... Eta lotan geratu nintzela...

- Jone! Esnatu! Natur Zientzietako kontrola duzu gaur.

Esnatu nintzenean ama euskaraz ari zen, eta marrubiak bilatzera joateko agindu zidan, bai, baina gure kalean dagoen denda batera.

Eta bidean nengoenean elefante baten itxurazko animalia handi bat lurtean etzanda ikusi nuen...

1. SARIA. OIHANE SARRIONAINDIA EGUREN
Izarra Herri Eskola (Izarra)-10 urte (2001ean)

Catalina Lorenzori laguntzen

Orain dela 2499 urte, Lorenzo izeneko eguzki bat zegoen eta Catalina izeneko ilargi bat. Lorenzo gero eta kezkatuagoa zegoen, gero eta su gutxiago zeukalako. Plutonek bere izotza urtzen zuen Lorenzoren sua amatatzeko, eta botatzen zuen beti gaua izateko eta beti Catalinarekin egoteko.

Azkenean, hurrengo urtean Lorenzo itzali zen eta gaixorik jarri zen sua ez zuelako. Catalina Lorenzo gaixorik zegoela konturatu zenean, ezin izan zuen gauetan atera, Lorenzo zaindu behar zuelako. Orduan hodeiari laguntza eskatu zion eta hodeiak hauxe esan zion:

-Ez, ez, nik ez dizut lagunduko, badakizu, zu baino askoz lan gehiago dudala, ez, ez!

Eta Catalinak erantzun zuen:

- Mesedez gauetan ez duzu prozesu hori jarraitu behar, mesedez...

- Ez, nik gauetan lo egiten dut. Gizakiok bezala!

- Damutuko zara ez laguntzeagatik!

- Eta hori zergatik?

- Prozesu hori jarraitzeko eguzkia behar duzu, zeren bestela nola lurrunduko da ura gero hodeia egiteko? Horregatik zaude zu bizi-rik. Orain zuk Lorenzori bizi salbatu behar diozu!

- Ongi da lagunduko dizut... Baina norbaitek lagundu behar dit!

- Ongi euriak lagunduko dizu!- erantzun zion.

- Ez, euriak ezin dit lagundu bustirik dago beti eta sua berritza-liko zuten- jarraitu zuen.

- Egia da utzi pentsatzen minutu bat!

Horrela egon ziren denbora bat pentsatzen, baina ez zekiten ze beste planeta zegoen bero. Tira, ez zekiten bere izena. Pentsatzen egon ziren eta Catalinari burura etorri zitzaion zein zen bere izena. Mercurio! Mercuriori galdetu zioten eta berak baietz esan zuen, bere beroarekin berritza zioten ahal zuela, baina oso denbora gutxi zeukatela zeren eta Mercuriori beroa laster kenduko zitzaion.

HAIZEA GALARRAGA ARRIZABALAGA

2. SARIA . Odon de Apraiz Ikastola-10 urte (2001ean)

Kalea hostoz beterik dago. Udazkena heldu berria da. Haizea eta bere lagunak baserri-eskola batera joan dira hiru egun pasatzera ikaskide guztiarekin batera. Haizea neska beltzarana eta liraina da, jatorra eta burugogorra. Zerbait nahi duenean, ez du amorerik ematen lortu arte. Bere lagunak onenak Itsaso eta Gorka dira. Itsaso neska zintzo eta langilea da, oso sentibera. Gorka, berriz, mutil azkarra eta geldiezina, beti besteei laguntzeko prest dagoena.

Baserri-eskola Txirula izeneko mendi batean kokaturik dago, harizti batez inguratutik eta mendi tontorrean gaztelu zahar eta misteriosu bat ikusten da. Hango biztanleak diotenez gaztelu horretan "Ilunpeko sorgina" bizi omen da.

Pijama ipini eta gure lagunak oheratu egin dira. Hurrengo egunean zeregin asko daukatelako. Haizea esnatu da, oraindik ilun dagoela ohartuz, honela pentsatu du:

- Oraindik ilun dago. Dena isilik dago, lotan jarraituko dut.

Handik ordu batera, erlojuari begiratu, hamaikak direla konturatu da:

- Ezinezkoa da oraindik zerua ilun jarraitzea. Erlojuak hamaikak direla adierazten du, eta beti ondo funtzionatzen du. Hemen zerbait gertatzen da!!! Besteei gertatzen dena jakinarazi behar diet.

Lehenengo Itsasoren ohera hurbildu eta esnatu ondoren honela esaten dio:

- Hamaikak dira eta ez da oraindik eguzkirik atera. Gorkari esan beharko geniola uste dut.

Biak ados zeudela, Gorkarengana joan ziren, kilikiliak eginez esnatu eta...

- Jaiki Gorka!!! Hamaikak dira eta egunak ez du argitu.

Gorka poliki-poliki esnatzen doan bitartean, Haizea eta Itsaso jantzi dira eta prest daude kanpora irtetzeko. Gorkak linterna hartu eta basorantz abiatu dira zer gertatzen den argitzeko asmoz.

ASIER GONZALEZ ZUFIAURRE

3. SARIA. Assa Ikastola (Lapuebla)-13 urte (2001ean)

Bazen behin 2001. urtean bi mutiko Iker eta Ander izenekoak eta Donostiakoak ziren. Iker eta Ander lagunak ziren eta oso futbolzaleak ziren. Ikerrek ile beltza zuen, begi marroiak eta txikiak eta oso indartsua eta ahaltsua zen. Ander, berriz, ile marroia, begi beltzak eta beldurgarria zen. Egun batean bi lagunak mendian zeuden futboleko jolasten eta momentu batean Ikerrek baloia bota zuen eta Ander bilatzera joaterakoan baloia ondoan zulo bat ikusi zuen eta Ikerri deitu eta gero, erabaki zuten sartzea zer zegoen jakiteko. Orduan bapatean Erdi Aroan agertu ziren eta han gaztelu batera sartu ziren. Baina ez ziren plaza erdian denbora asko egon zeren bi soldaduk harrapatu zituzten eta zelda batera eramane zituzten. Han zeldan mutil baten lagunak egin ziren, Pablo izeneko mazu ikasle batetaz. Mutikoak janaria eramaten zuten eta arrazoi horregatik lagunak egin ziren baina beste arrazoi inportanteagoa zegoen lagunak izateko: hirurak erregeari gorrotoa zioten.

Egun hartan besteetan bezala, Pablo janaria eramatera zihoan eta bapatean Pablok bere potsikotik giltza atera zuen eta hirurak korrika joan ziren gaztelutik, baloia ahaztu barik, noski. Hiru lagunak joan ziren baina erregeak eta bere soldaduak atzetik joan ziren. Ia harrapatuta zeudenean Pablok bere laborategira eramane zituen. Han edari bat eman zien eta edatera joan zirenean, erregea sartu zen eta Ikerri ideia bat bururatu zitzaion eta bapatean Ikerrek baloia bota zion eta erregea baita soldaduak ere korrika joan ziren beldurtuta.

Azkenean Iker eta Anderrek edaria edan zuten eta beren garaiara bueltatu ziren. Bere garaiara heltzerakoan nota bat ikusi zuten eta jartzen zuten: "Eskerrik asko zuten laguntzagatik, orain herriko eta gazteluko magua eta erregea naiz".

Lanean hasi ziren, baina ezinezkoa zen, ez zegoen beroegi sua emateko. Orduan 2.en planeta beroarengana joan ziren, hobeto esanda Venusera, baina Venus hotzegi zegoen Lorenzo laguntzeko.

Hurrengo egunean Lorenzo ezin izan zen atera eta jendea oraindik gaua zela konturatu zenean eklipse bat zela pentsatu zuten eta lasai geratu ziren.

Lorenzo hiltzeko zorian zegoen eta Catalinari hauxe esan zion:

- Catalina hil egingo naiz, horrexegatik betirako gaua izango da eta lan gehiago izango duzu!

- Ez, ez zara hilko nik lagunduko zaitut!

- Baina ez daude sendagaiak ni ez hiltzeko. Bakarrik ura, gatza, baporea eta Marteko hauts gorriak behar ditugu, eta hori ezin dugu lortu!- erantzun zuen.

- Bai lortuko ditugu sendagai horiek, baina nik ez, Muippalik lortuko ditu, eta gainera orain deituko diot! Muippali etorri hona, behar zaitugu!

- Balnoa! Balnoa! Zel nahil duzult!

- Ura, gatza, baporea eta Marteko hauts gorriak lortu behar dituzu.

- Olngi ekarriko dizkizut!- erantzun zuen.

- Lurra planetara joan eta esan dizudan guztia ekarri.

- Olaintze balnoa!- esan zuen berriro ere.

Jendeak Muippali ikusi zuenean harriturik geratu zen, Muippalik zer gertatu zen kontatu zenean jendea konturatu zen ez zela eklipsea, orduan Joy astronautak joan nahi zuela esan zuen sendagai horiek eramateko, orduan bere uniforme jarri eta espaziora joan ziren.

Bitartean Pluton farre egiten ari da eta oso triste gaua ez delako eta horregatik beti punta batean dago haserreturik gaua ez delako.

Azkenik Joy gizakiaren laguntzaz Lorenzo sendatu zuten eta Plutoni aste bat osorik izotzik gabe utzi zioten eta gero barkamena eskatu zion Lorenzori. A! Eta ez ahaztu Catalina eta Lorenzo ezkondu zirela eta Lorenzito asko eta Catalina txiki asko izan zituztela.

Dena isil-isilik dago. Animalia guztiak lo daude. Haizea dardarka hasi da. Gorka eta Itsaso Haizea lasaitzen aritu dira. Bapatean, Gorkak itzal beltz bat ikusten du zeruan baina ez daki zer izan daitekeen. Itsasok honela esaten du:

- Hori gazteluan bizi den Ilunpeko sorgina da. Nire amonak dioenez, oso gaitoa eta maltzurra. Munduko jabe izan nahi duenez, eguzkia itzali behar du, bere magia guztia indargabetzen baitio.

- Gaur gertatzen ari dena, bere maltzurkeriaren bat izango da- esaten du Haizeak.

- Ba nire amonaren amonaren amona, Anbotoko sorginaren laguna zen eta berea izandako liburu magikoa dut gordeta etxean. Nire anaiari e-mail bat bidaltzen badiogu gertatzen den arazoa azalduz, berak liburuan begiratu eta zer egin behar dugun esango digu- proposatzen du Gorkak pozik.

Baserri-eskolara bueltatu eta han ordenagailu aurrean eseri eta Gorkaren anaiari mezu garrantzitsu bat bidali diote. Oso urduri daude erantzunaren zain. Halako batean:

“Hemen dituzue esan beharreko hitz magikoak: Eguzkiak argia emateko... sorgina menperatu beharko. Esaldi magikoa esan bitartean, haritz baten inguruan biraka ibili beharko duzue. Zorte on!”.

Basora joan dira baina ez dakite haritza zein zen bereizten. Haizeak lurrean haritz hosto batzuk aurkitu ditu eta haien ondoan dagoen zuhaitzak haritza izan behar duela pentsatu du. Egin beharrekoak egin eta ez da ezer gertatzen. Zeruak ilun jarraitzen du.

- Nire ustez, buelta gehiago eman beharko genuke- esaten du Itsasok.

Eguzkia agertu arte jarraitzen dute biraka eta zorabiatuta bukatu dute lurrean. Baina eguzkia ateratzea lortu dute. Eta sorgina??? Ez da berari buruz ezer gehiago entzun!

ASIER LANTXO FABIAN

3. SARIA

Toki Eder Ikastola-11 urte (2001ean)

Kristo aurretik 300.urtean Olinpo mendian, Jainkoak bildu egin ziren, zein lan tokatuko zitzaien zozketan. Dionisio irrikitan zegoen, eguzkiaren jainkoa izateko, baina horren ordez, ardoaren jainkoa izatea tokatu zitzaion. Jainko eta Jainkosak oso pozik zeuden Dionisio ezik, eta Apolori, eguzkiaren jainkoa izatea tokatu zitzaion.

Txikitari Apolo eta Dionisio lagun minak ziren, beti elkarrekin zeuden, jolasteko, etxeko lanak egiteko... Dionisio oraindik gogoratzen zuen leiho bat apurtu egin zuela eta Dionisiori errieta ez botatzeko Apolok esan zuen bera izan zela leihoa apurtu zuena. Hilabete bat egon zen pentsatzen Dionisiok nola bota ahal zuen Apolo bere lanetik. Bururatu zitzaion lehenengo ideia izan zen karrotik tiratzen zuten zaldi eta behorriak belar txar batekin zaldia eta behorra kutsatzea. Aste bat pasata esan zion Dionisiok Apolori eguzkia aterako zuenean:

- Zeus oraintxe bertan ikusi nahi zaitu.

- Esazioz bost minutu barru joango naizela- esan zuen Apolok.

- Oraintxe bertan joan behar duzu, oso haserretuta bai dago!- esan zuen oihukatzen Dionisiok.

- Orduan oraintxe bertan noa- esan zuen Apolok.

Olinpoa leku zoragarria zen, Olinpo mendien tontorrean zegoen. Han goian jainko eta jainkosa bakoitzak beren tenplua zeukaten. Apolo Zeus zegoen tokira iritsi zenean, arnas-estukan esan egin zion:

- Zer nahi duzu, Zeus?

- Zergatik idatz egin didazu eskutitz hau esaten duena ni tontolapiko bat naizela eta txerrikume bat naizela?

- Baina Zeus, ni, ni... ni ez naiz izan hori idatzi duena- erantzun zion Apolok.

- Baina nork bestela?- galdetu zion Zeusek Apolori.

- Nik, ez dakit baina ni ez naiz izan eskutitza idatzi duena- esan zuen Apolok.

Zeus eta Apolo hitz egiten ari zuten bitartean, konturatu gabe bi ordu pasa egin zen eta eguzkia, Apolok ez zuen atera, eta jendea oso urduri zegoen eguzkiaren faltagatik. Amek, beraien semeek ez zien utzi ikastolara joaten, pentsatzen zutelako oso arriskutsua zelako, kaleetan iskanbila handia sortu egin zen, eta ia-ia jende guztia oihukatzen zeuden txoroak bezala.

Afrodita, Zeus zegoen tokira joan egin zen esateko eguzkia ez zela atera, Zeus oso-oso haserretuta oihukatzen esan egin zion Apolori:

- Zure lana galdu egin duzu eta ikusiko dugu ia zenbat urte egongo zaren kartzelan.

Zeus, zaldi eta behorra eta eguzkia zegoen tokira joan egin zen eta zaldia eta behorra hilda aurkitu zuen, eta bere magiarekin zaldi txuri bat eta behor txuri bat bat-baten agertzea egin zuen eta Zeusek bera eguzkia atera zuen, orduan jende guztia lasaitu egin zen, baina Dionisio oraindik haserretuta zegoen.

HITZAK

JON LUZURIAGA GONZALEZ

3. SARIA.

Toki Eder Ikastola-11 urte (2001ean)

Bazen behin Lapurdiko herritxo batean Ander izeneko mutil bat. Honek 5 urte zituen. Beti jaikitze-rakoan lehioan ireki eta eguzkia ikusten zuen. Egun batean ez zen eguzkirik atera eta Ander arduratuta zegoen. Azkenean espaziora joatea bururatu zitzaion. Oso arraro jantzi zen: lapiko bat buruan, arropa beltza, betaurrekoak, botak eta kapa bat. Benetan superman zirudien. Gau batean motxila prestatu: bokadiloak, latak, zumaok... eraman zituen eta Nasaruntz abiatu zen. Espaziontzian sartu eta ilargian jaitsi zen. Ondoren hegan joan zen Merkuriora eta han galdetu zion Merkuriori:

- Zergatik eguzkiak ez du argirik?

- Ba, hodeiarekin haserre dagoelako.

- Eta hori zergatik?

- Ba hodeiak udan irten nahi duelako, eta eguzkiak ezetz, hori bere urtaroa dela. Hodeiak izorratzeko eguzkia estali du.

- Beno, eskerrik asko- esan zion Anderrek.

Hodeiarengana joan zen:

- Hodei jauna- esan zion Anderrek.

- Zer nahi duzu?

- Ea zergatik ez zaren eguzkiaren lagun egiten?

- Ez eta ez, hori inoiz ez!

Hori entzutean Ander triste lurrera joan zen. Lurrera heltzean ohera sartu zen ona egingo zuela pentsatuz. Goizean berriro beste egunetan bezala jantzi eta kalera joan zen. Denok triste zeuden eta zerbait egitea erabaki zuen.

Denda batera joan eta aspiragailu bat erosi zuen. Berriro espaziora joan zen. Honetan aspiragailuarekin. Bitartean, lurrean, bere ama oso urduri zegoen Ander ez zelako agertzen eta polizia eta dena ibili zen bilatzen. Baina han goian Ander zegoen aspiragailuarekin, hodeia absorbitzea nahi zuen baina entxuferik gabe ez zuen funtzionatzen. Hodeia barrezka hasi zen:

- Ja, ja. Elektrizitate gabe ez dabil.

Eta orduantxe, pam! Tximista bat bidali zion baina Anderrengana joan beharrean aspiragailuarengana joan zen eta funtzionatzen hasi zen. Hodeia absorbitu eta espaziora bidali zuen. Eguzkia libre zegoen. Ander lurrera jaitsi eta amarekin elkartu zen. Bi muxu eman eta lotara sartu zen. Hurrengo goizean...

- Begiratuko dut ala ez? Eta ez badago eguzkia?

Gosaltzera joan zen. Egun honetan ez zen kanpora irten, eta gaua zenean...

- Beno begiratuko dut.

Leiho ireki eta:

- O ez! Banekien ez zela egongo!!!

Lo hartu zuen eta esnatu zenean lehioa ireki eta hor zegoen bai, hori zen eguzkia: Bere kolore horiarekin, itxura borobilarekin eta zeru urdinarekin inguruan. Ah zer polita!!

Handik aurrera beti egunon esaten zion eguzkiari eta gabon eskutatzen zenean. Egun horretan kalera irten zenean denak irribartsu eta pozik zeuden. Gora begiratu zuenean eguzkiak begi batez keinu egin zion.

**OTSAILAREN 22an,
OSTIRALA**

Arratsaldeko 6.30etan

Armentia Ikastolan

**TAUPADA ANTZERKI TALDEA
“MARI SORGIN”**

**SARRERAK ARMENTIA IKASTOLAN SALGAI
(aurreko astean, 17.00etatik 18.00etara, 3 eurotan)**



**GEUK 5 SARRERA OPARITZEN DITU.
DEITU LEHENBAILEHEN!**

**LAGUNTZAILEAK
GEU elkarte-GEU aldizkaria**

ANTOLATZAILEA



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



**PARRAL TABERNA.
OTSAILEKO AGENDA**

ORDUA: 20.30ETAN

▪ 5AN:

SANT PAU 54 (JAZZ)

▪ 12AN:

PAVEL URKIZA (KUBAKO BAKARLARIA)

▪ 19AN:

ANTZERKIA. TEATRO SIN-PAPELES: EL CABALLO DE CORAL, EL HAMBRE, FRANCISCA Y LA MUERTE

▪ 26AN:

KULTUR ERROTA,
GEU ELKARTEAREN ESKUTIK.

POESIA ERREZITALDIA:

"BITARTEAN HELDU ESKUTIK"

KIRMEN URIBE, TXOMIN URIBE, JOSU ARANBARRI

POESIA, MUSIKA, MARGO-LANA

ADI HIKAATENEOKO**OTSAILEKO AGENDARI!!!**

(Gune soziopolitikokulturala)

Pinto kalea, 13

(lehengo Zuloa liburudenda)

Ekitaldiak hilero: errezitaldiak, hitzaldiak, bideo emanaldiak, mintegiak, mahaiinguruak...

**XX. XABIER
LIZARDI
SARIA, HAUR
IPIIN LEHIAKETA**ANTOLATZAILEA
ETA INFORMA-
ZIOA:ZARAUTZKO
UDALA (945
13 09 60)EPEA: OTSAILA-
REN 8A

SARIA: 2.400

EURO

XX.
Xabier Lizardi Saria**EUSKAL JOLASEN BILDUMA.
URTXINTXA ESKOLA
(ATSEDENALDIKO HEZITZAILEEN
ESKOLA)**- IRAKASLE, GURASO, HEZITZAILE ETA HAURREI
ZUZENDUA- 50 JOLASEN FITXA TEKNIKOAK (JOLAS
GUZTIAK MARRAZKI BIZIDUNETAN IRUDIKATUTA),
28 ABESTI, TORTOLOXEN JOLAS INTE-
RAKTIBOA (EUSKAL JOLAS TRADIZIONALEAN
OINARRITUTAKO DENBORA-PASA INTERAKTIBOA)

*ESKAERAK. 943270033. E-POSTA:

GIPUZKOA@URTXINTXA.ORG

(WWW. URTXINTXA.ORG)

EUSKARAZ JOLASTEN IKASTAROAKANTOLATZAILEA: HIK HASI (EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZ-
KARIA)INFORMAZIOA: HIK HASI (943371408)-HARKAITZ
(943361476)-LEIRE (943457394)

E-POSTA: EUSKARAZJOLASTEN@EUSKALERRIA.ORG

GAUEKOAK-NEGUA 2002KONTZERTUAK-ZINEA-KIROLAK-ZIBERRAK-ANTZERTIA-LANTEGIAK-ESTILOA-
GAZTE KLUBA-KIDEAK-DIBERTSIOA

ALDABE GIZARTE ETXEA.

URTARRILAREN 11TIK MARTXOAREN 30ERA,

OSTIRAL ETA LARUNBATERO GAUEAN,

22.00ETATIK 2.00ETARA

GAUA GOZATU - WWW.GAUEKOAK.ORG

**GAUEKOAK IZOTZ PIS-
TAN**

22.30ETATIK 1.00ETARA

2X1, IZOTZ GAINEKO DISKOTE-
KA, PATINAKETAN HASTAPENA,
ETA ABAR...IZENA EMATEKO ETA GONBIDA-
PENAK JASOTZEKO: GAUEKOAK-
EN, ALDABE GIZARTE ETXEAN,


OSTIRAL ETA LARUNBATETAN (22.00ETATIK 2.00ETARA)

Euskara
ikasteko
hamaika
bide omen
daude.....
AEKn onena**Aixkiria, Amaiur, Arana
AEK euskaltegiak****2, 3 eta 5 orduko ikastaroak otsailetik
ekainera · autoikaskuntza gela****matrikula: otsailaren 8ra arte**




JAUNGOIKO
ETA GIZAR TEAREN
IZENEAN BATAIATZEN
ZAITUT!,
TINK

pss,
psst, eta
gure txanda
noiz?...



ixo, ixo!
haserretuko
da eta...

IZEN BILA. ZOZKETA. Bidalitako proposamenen artean (geutxi, txontxi...) anonimo batek bidalitakoa hautatu dugu. ZORIONAK!, zuri esker gure pertsonajeak badu izena.



HALABES
OPERAZIOA

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin itundutako ikastetxea
- Arabako Lanbide Heziketako Partzuergoko kidea
- Lanbide Heziketako ikastetxe integrala
- Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak babestutako ikastetxea
- Hobetuzek eta INEMek homologatutako ikastetxea
- Egailanen (Langai) ikastetxe laguntzailea
- HETEL eta UCARA elkartutako ikastetxea
- Caja Vital Kutxako Gizarte Ekintzan sartua



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

ARRIAGA IKASTETXEA
D.B.H. (A, B eta D erduan)

NIEVES CANO IKASTETXEA
D.B.H. (A, B eta D erduan)



Batxilergoak

ARRIAGA IKASTETXEA

- Teknologi Batxilergoa (A eta D erduan)
- Natur eta Osasun Zientzen Batxilergoa

MOLINUEVO IKASTETXEA

- Giza eta Gizarte Zientzen Batxilergoa (A eta D erduan)
- Natur eta Osasun Zientzen Batxilergoa (A eta D erduan)

NIEVES CANO IKASTETXEA

- Teknologi Batxilergoa (A eta D erduan)
- Natur eta Osasun Zientzen Batxilergoa



Lanbide Heziketa Zikloak

GOI MAILA

Ikastetxea **L.H. Zikloa** **Ordu kopurua**

Ikastetxea	L.H. Zikloa	Ordu kopurua
ARRIAGA	• Elektroteknika Gaiak Garatzea	2.000
	• Erregulazio eta Kontrol Automatikoaren Sistemak (Elektronika)	2.000
	• Industri Ekipoak Mantentzea	2.000
	• Automobilgintza	2.000
	• Telekomunikazio eta informatika Sistemak	2.000
	• Informatika Aplikazioen Garapena	2.000
	• Informatika Aplikazioen Garatzea	2.000
MOLINUEVO	• Administrazioa eta Finantzak	2.000
	• Idazkaritza	1.300
	• Garraioaren Kudeaketa	2.000
	• Merkataritza Kudeaketa eta Marketina	1.400
	• Estetika	2.000
	• Animazio Soziokulturala	1.700
NIEVES CANO	• Mekanizazioko Produkzioa	2.000
	• Proiektu Mekanikoaren Garapena	2.000
	• Diagnostiko Klinikoaren Laborategia	2.000

Euskeraz,
erderaz eta
ingelesez

ERDI MAILA

Ikastetxea	L.H. Zikloa	Ordu kopurua
ARRIAGA	• Lineak Eramatea eta Instalazioen Mantentze elektromekanikoa	2.000
MOLINUEVO	• Asministrazio Kudeaketa	1.300
	• Ile-Apalketa	2.000
	• Erizain Laguntzaileen Zainketak	1.400
NIEVES CANO	• Mekanizazioa	2.000
MENDIZORROTZA	• Taberna eta Jatetxe Zerbitzuak	1.400
	• Sukaldaritza	2.000
	• Gozokintza eta Okintza	1.400

"D" erduan



Diocesanar-Arriaga

Pozoa kalea, z/g.
Tel.: 945 010 110
Faxa: 945 010 119
e-mail: arriaga@diocesanar.org
01013 VITORIA - GASTEIZ



Diocesanar-Molinuevo

San Ignacio kalea, 6
Tel.: 945 010 120
Faxa: 945 010 129
e-mail: molinuevo@diocesanar.org
01001 VITORIA - GASTEIZ



Diocesanar-Nieves Cano

Nieves Cano kalea, 10
Tel.: 945 010 130
Faxa: 945 010 139
e-mail: nieves_cano@diocesanar.org
01006 VITORIA - GASTEIZ



Diocesanar-Mendizorrotza

G^a. Salazar emp., z/g.
Tel.: 945 010 140
Faxa: 945 010 149
e-mail: mendizorrotza@diocesanar.org
01007 VITORIA - GASTEIZ